



**Economistas
sin Fronteras**

MgE dosierrak
62. zk., 2026ko uda

TRUMP 2.0: DESORDENAREN EKONOMIA ETA GAINBEHERA DOAN INPERIO BATEN GERRA





AURKIBIDEA

- | | |
|---|---|
| <p>4 AURKEZPENA: Trump 2.0: desordenaren ekonomia eta gainbehera doan inperio baten gerra
Juan Torres López
<i>Ekonomia Aplikatuko katedradun erretiratua</i></p> <p>7 Trump: amildegi sozialerantz doan agintaldia
Carles Manera
<i>Balear Uharteetako Unibertsitateko katedraduna</i></p> <p>10 Trump eta munduko desordena berriaren arrazoiak
Ignacio Muro Benayas
<i>Ekonomialariak Kriaren Aurrean elkarteko presidenteordea</i></p> <p>16 Trump eta Ameriketako Estatu Batuak dolarraren krisiaren aurrean
Jorge Pérez
<i>Ekonomian doktorea eta Espainiako Bankuko Kontabilitate Erregulazioko buru ohia</i></p> <p>20 Trumpen administrazioa eta Txinaren lehia
Xulio Ríos
<i>Txinako Politikaren Behatokiko aholkulari emeritua</i></p> <p>26 Europaren Trantsizio Berdea Trumpen ingurumen-erabileraren aurrean: erresilientzia berdea «efektu grisaren» aurrean
Daniel Díaz-Fuentes; Judith Clifton; Marcos Fernández-Gutiérrez; Ana Lara Gómez
<i>Kantabriako Unibertsitatea</i></p> | <p>34 Injerentzia eta petrolio: lehen urte trumpistaren geopolitika
Nahia Sanzo Ruiz de Azua
<i>GEUSK Nazioarteko Politikaren Euskal Institutua / Instituto Vasco de Política Internacional</i></p> <p>39 Krisi ekosozialari emandako erantzun distopikoei aurre egitea
Yayo Herrero
<i>Foro de Transiciones elkarteko bozeramailea.</i></p> <p>44 Zergatik Trump, zertarako eta zer etorriko da haren ondoren?
Juan Torres López
<i>Ekonomia Aplikatuko katedradun erretiratua</i></p> <p>50 GOMENDATUTAKO LIBURUA: El nuevo espíritu del mundo. Política y geopolítica en la era Trump (Esteban Hernández)
Juan Torres López
<i>Ekonomia Aplikatuko katedradun erretiratua</i></p> <p>52 GEHIAGO JAITEKO</p> |
|---|---|

Mugarik gabeko Ekonomialariak erakundeak zure laguntza behar du. Uste baduzu gure EsF txostenak edo orokorrean gure jarduerak gizarte-erabilgarritasuna duela, laguniezaguzu gure lana mantentzen. Erreferentziazko GKEa izan nahi dugu bideko ekonomia bilatzeko orduan, gizarte- eta ekonomia eragileen sareko lana sustatu eta elkarriketa errazten laguntzeaz gain. Bakarrik gizarte-partaidetza zabalaren lorpenekin lortu ahal izango baitugu bideko ekonomia. Nahi duzun ekarpen ekonomikoa egin dezakezu:

Ondorengo esteka honetan
inprimakia beteta:

[Egin dohaintza orain](#)

Edo BIZUM: erabiltzearen bidez:



01895

Fundazioaren kodea
Mugarik gabeko
Ekonomialariak

Ikus daiteke nola egin dohaintza bizum bidez hemen
<https://ecosfron.org/unete/dona-con-bizum/>

Gure erakundeko bazkide izan eta Mugarik gabeko Ekonomialariak erakundearekin aldizka lagundu nahi baduzu, gure webgunean dagoen inprimakia osatuta egin dezakezu:

[Egin zaitez Bazkide](#)

Edo 91 549 72 79 telefono-zenbakira dei dezakezu • Informazio guztia hurrengo webgune honetan: <https://ecosfron.org/unete/>

Irabazi-asmorik gabeko erakundeetarako Espainiako legediak pertsona fisikoek egindako ekarpen eta dohaintzei aldeko tratu fiskala ematen die, PFEZaren kuotan kenkarirako aukera baitago.

ARGITALPEN KONTSEILUA

Luis Enrique Alonso
María Eugenia Callejón
Marta de la Cuesta
Beatriz Fernández Olit
María Luisa Gil Payno
Juan A. Gimeno
Jorge Malfeito Gaviro
José Ángel Moreno

ARGITALPEN TALDEA

María Eugenia Callejón
Javier Esteban
Luisa Gil Payno
Juan A. Gimeno
José Ángel Moreno

Ale honen koordinazioa:

Juan Torres López
Ekonomia Aplikatuko katedradun erretiratua

ISSN 2603-848X Dossieres EsF

Azaleko irudia: Azaleko irudia: Jozef Mišic-en jatorrizkotik aldatutako ilustrazioa, Adobe Stock-en bidez.
Maketazioa: LA FACTORÍA DE EDICIONES, SL

Dossieres EsF Mugarik gabeko Ekonomialariak
erakundearen hiru hileroko argitalpen digital bat da.


Mugarik gabeko Ekonomialariak (MgE) Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde (GGKE) bat da, 1997an unibertsitate-esparruan sortua, eta gaur egun ekonomia bidezkoa, solidarioa eta iraunkorra eraiki nahi duten pertsonen osatua; erakundearen lehentasunezko asmoa pobrezia eta desberdintasunak desagerraraztea da.

Mugarik gabeko Ekonomialariak erakundearen uste dugu garapen-eredu berri bat behar dela, ekonomia gizakiaren zerbitzura jar dadin, eta ez, gaur egun gertatzen den bezala, milioika pertsona ekonomiaren zerbitzura egon daitezen.

Gure helburua da gizarte-arloan erantzukizuna hartuko duten herritarrak sortzen laguntzea, modu aktiboan jardun dezaten eta gizartea eraldatzeko premiarekiko konpromisoa har dezaten.

Erreferentziatzeko GKE bat izan nahi dugu bidezko ekonomiaren bilaketan, eta gizarte-eta ekonomia-eragileen artean elkarriketa errazten eta sareko lana sustatzen lagundu. Izan ere, gizartearen parte-hartze zabal baten bidez soilik lortu ahal izango dugu bidezko ekonomia bat.

Gure bazkideen ekarpenak funtsezkoak dira iraupen luzeko proiektuak planifikatu eta egin ahal izateko.



MgE Dosierak, Economistas sin Fronteras erakundeak eginak (<http://www.ecosfron.org/publicaciones/>), Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Internazionala lizentzia baten pean banatzen da (<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/>).

Baimenduta dago lanaren kopiak egitea, osorik edo partzialki, bai eta haren jendaurreko jakinarazpena ere, betiere ez bada helburu komertzialarekin egiten eta jatorrizko lanaren egilea nor den aitortzen bada. Ez da baimentzen lan eratorririk sortzea.

Mugarik gabeko Ekonomialariak Euskadi
EKONOPOL
Harrobi Plaza, 4,
48003 Bilbo, Bizkaia
Tel.: 722 371 633
ecosfron.euskadi@ecosfron.org

Mugarik gabeko Ekonomialariak
c/ Gaztambide, 50
(entrada por el local de SETEM)
28015 Madrid
Tel.: 91 549 72 79
ecosfron@ecosfron.org

TRUMP 2.0: DESORDENAREN EKONOMIA ETA GAINBEHERA DOAN INPERIO BATEN GERRA

Juan Torres López

Ekonomia Aplikatuko katedradun erretiratua

Donald Trumpek AEBko presidente-kargua bigarren aldiz hartu zuenean, mundua hankaz gora jarriko zela pentsatu zuen jende askok. Eta ez zen irudipen okerra izan.

Hilabete gutxiren buruan kolokan hasi zen zortzi hamarkadatan zehar herrialdeen arteko harreman ekonomikoak gobernatu zituen nazioarteko ordenaren arkitektura. Nazioarteko merkataritzaren arauak bertan behera geratu ziren eta, egun batetik bestera, bortxakeria eta indarraren hizkuntza nagusitu ziren akordioen orde. Aliantzak kolokan, adostasunak airean eta erakunde multilateralak susmopean geratu ziren. Ia egunero sortzen ziren gatazken erdian, areagotu egin ziren aurreko arrastoen gainean finka zitekeen ordena berriari buruzko zalantzak, baina ez zegoen erantzun zehatzik zalantza horientzat.

Kristalina Georgieva Nazioarteko Diru Funtsaren zuzendari gerenteak, erakunde hori egiten duen guztiaz oso ziur egon ohi bada ere, onartu egin zuen, 2026ko ekainaren erdialdean, munduko ekonomia nahasita zegoela: «Mundua ez dago prest **gero eta maizago pilatzen diren krisiei** aurre egiteko».

Testuinguru horretan, Donald Trump Ameriketako Estatu Batuetako presidentetzara iritsi ondoren zer gertatzen ari den aztertzerakoan, bada erraz zapaldu daitekeen tranpa bat: nahasmendua haren nortasun xelebreari bakarrik zor zaiola sinestea. Hau da, pentsatzea haren bigarren agintaldi honetan gertatzen ari dena anomalia soil bat edo historiako istripu bat dela, presidente izateari uzten dionean amaituko dela epe xelebre hori eta, beraz, nahikoa dela zikloa amaitu arte itxarotea gauzak bere bidera itzul daitezen.

Dosier hau bestelako ziurtasun batetik jaio da; alegia, Trumpekin gertatzen ari dena ezin da ulertu Trumpen atzean zer dagoen eta Trumpen presidentetza zer testuingurutan garatzen den ulertu gabe. Zehazki, interes ekonomiko, energetiko, teknologiko, finantzario eta mediatiko nabaria duten talde ahaltsuak daude haren atzean, eta kapitalismo garaikidearen

fase bat ere bai. Fase horrek hamarkadak daramatza garapen betean, eta Trumpengan gauzatu du bere kudeaketa-modurik gordinena, zaratatsuena eta gatazkatsuena, baina ez bakarria, ezta, nahitaez, azkena ere.

Hainbat hamarkadatan zehar, diru-sarrera, aberastasuna eta boterea giza historiako mailarik handienetan biltzea lortu dute politika neoliberalak. Horren eraginez, kapitalismo-mota berri bat nagusitu da, erauzlea eta pilatzailea. Haren bereizgarri nabarmenena ez da estatua gorrotatzen duela, maiz errepikatzen den bezala, baizik eta estatua bere baitarako behar eta nahi duela. Haren negozio nagusiek, dosierraren azken kapituluaz aztertzen den bezala, behar-beharrezkoak dituzte monopolioak blindatuko eta lehiakideak deuseztatuko dituzten legeak; hornidurak eta garapenak ziurtatuko dizkieten gerrak; eta mugarik gabeko zerga-murrizketak eta pribilegioak. Hitz batean, Estatua harrapatu behar dute, eta horrek eraman du gure garaiko kapitalismoa demokraziarekin gero eta bateraezinagoa izatera, Peter Thielek, bere ordezkariarik ezagunenetako batek, aitortu zuen moduan: «Jadanik ez dut uste askatasuna eta demokrazia bateragarriak direnik».¹

Kapitalismo errentatzailearen eta demokraziaren arteko tentsio estruktural horri are gehiago gaiztotzen duen bigarren prozesu bat gehitzen zaio: Estatu Batuen gainbehera erlatiboa potentzia nagusi gisa eta Txinaren igoera alternatiba erreal gisa.

Estatu Batuetako ekonomia etengabe ari da itzala galtzen ekoizpenean, munduko merkataritzan eta munduko diru-sisteman, eta, aldi berean, Txina gora eta gora ari da, eta gaur egun aurrerapen ekonomikoaren eragile erabakigarri diren sektoreen abangoardian kokatu da.

1. Thiel, Peter, «The Education of a Libertarian», CATO Unbound, 2009ko apirilak 13, <<https://bit.ly/45zRGwI>>



Prozesu horien, hau da, gure garaiko kapitalismoaren kontraesanen eta laurogei urtez hegemonikoa izan den potentziaren krisiaren uztarketa da, benetan, mundua hankaz gora jartzen ari dena, eta ez Trumpen nortasun soila. Bizitzen ari garena ez da epe puntual bat, baizik eta desordenaren bidez gertatzen ari den trantsizio bat, beste ordena batera garamatzana.

Horregatik, une hau ulertzeko, luzera begirako eta espekto zabaleko analisi zehatzak egin behar dira. Marko konbentzionalek, fenomeno bakar bati aldi berean begiratu, eta gertatzen den guztia faktore edo pertsonaia batera murrizten dutenek, ez dute balio ez benetan gertatzen dena deskubritzeko, ezta egoera berriaren aurrean neurri eraginkorrak hartu ahal izateko ere. Ekonomia historiarekin, geopolitika ideologiarekin, energia politikarekin gurutzatzen duten analisiak behar dira, eta hori guztia ingurumenarekin, arkitektura instituzionalarekin, botere-harremanekin eta balioekin uztartu behar da. Eta ikuspegi desberdinak behar dira, ez baitago aztertu beharreko panorama osoa bil dezakeen begiradarik.

Helburu horrekin sortu da Mugarik Gabeko Ekonomialariak elkarteko txosten hau. Egile-talde anitz baten ekarpenak biltzen ditu, eta Trumpen bigarren agintaldia honetan munduko ekonomian gertatzen ari dena ulertzeko funtsezkoak iruditu zaizkigun gaiak jorratzen ditu, ikuspegi desberdinetatik baina osagarrietatik: haren politiken ondorioak, politika horien atzean dagoen logika sakona eta etorkizunean izan ditzaketen ondorioak. Ardatz nagusia ekonomia da, baina politikara, ideologiara, energiara, ingurumenera, historiara eta arkitektura instituzionalera zabaldu dugu leihoa, arlo horiek gabe ez baitago ekonomia ulertzerik.

Dosierraren edukia

Trumpen bigarren agintaldiko barne-politika ekonomikoen analisi batekin hasten da dosierra. **Carles Manerak** aztertu du nola ari den presidentetza hori amildegi sozialerantz gero eta gehiago hurbiltzen. Muga-zergen politika; Erreserba Federalaren aurkako eraso sistematikoa; ikerketan, osasunean eta etxebizitzan egindako murrizketa masiboak; presidentearen eta haren ingukoen aberastasun pertsonala; eta desberdintasunaren igoera azkarra. Faktore horiek guztiek osatzen duten panoraman aldakortasuna eta ziurgabetasuna ez dira albo-ondorioak, baizik eta, biztanle gehienek kostuak beren gain hartzen dituen bitartean, errenta eta boterea jada boteretsuen direnengana transferitzen duten politiken ondorio nabariak.

Ondoren, **Ignacio Murok** munduko desordena berriaren arrazoi sakonak aztertu ditu, arakatzuz nola Silicon Valleyren, Wall Streeten eta Pentagonoaren arteko loturak, erauzketa-industria tradizionalekin batera, botere-bloke berri bat eratu duen, zeinaren logika Trumpengandik askoz haratago baitoa. COVIDaren krisiak, Txinaren garapen teknologikoak eta korporazio handiek gero eta erauzleagoa eta Estatuaren harrapaketa mendekoagoa den kapitalismo baterantz egin duten bideak erakusten du zergatik une hau ez den gertakari iragankor bat, baizik eta aldaketa sistemiko bat, aliatuei morrontza ezartzeko eta Txinak potentzia nagusi gisa duen igoera geldiarazteko.

Jorge Pérez Nazioarteko Diru Sistemaren krisian murgildu da, eta Keynesek 1943an iragarri zuen dilema estrukturala aztertu du. Gaur egun gordin-gordin ageri da dilema hori: dolarrak munduko erreserba-moneta gisa duen pribilegio neurrigabea da, aldi berean, Estatu Batuetako finantza-boterearen

iturria eta herrialdea mugarik gabeko zorpetzera eta desindustrializazio progresibora kondentzen duen tranpa. Artikulu horrek alternatiba historikoak eta garaikideak aztertzen ditu, Keynesen *bancor* monetatik hasi eta kriptomonetetara, moneta egonkorretara eta banku zentralen moneta digitaletara arte, eta argi erakusten du aukera bideragarrienak multilateralismo handiena eskatzen dutenak ere badirela; hain zuzen ere, Trumpek inolaz onartu nahi ez dituenak.

Xulio Ríosek zorrotz azaltzen du Estatu Batuen eta Txinaren arteko lehia estrategikoaren bilakaera hiru agintalditan zehar. Hark erakusten du Trumpen lehenengo agintaldian merkataritza-lehia gisa hasi zen markoa nazioarteko politika garaikide osoa egituratzen ari dela. Artikuluan lehia horren paradoxa nagusia aztertzen da: Washingtonek egindako presioak ez du lortu Txina ahultzea; aitzitik, haren autosufizientzia teknologikoa azkartu eta erresilientzia ekonomikoa sendotu du. Pekingo 2026ko maiatzeko goi-bilera inflexio-puntu posible gisa aztertzen da artikulan, baina litekeena da egonkortze taktikoa izatea, bi aldeetako batek ere konpondu ezin duen eta azken ondorioetaraino eraman ezin duen lehia baten barruan.

Daniel Fuentesek Trumpen politika klimatikoek Europako trantsizio berdean nola eragiten duen landu du, eta aztertu egin du nola AEBk nazioarteko konpromiso klimatikoari uko egiteak, ingurumen kontrolak kentzeak eta erregai fosilak masiboki bultzatzeak, krisi klimatiko globala larriagotzeaz gain, aldatu egiten duen Europak trantsizio energetikoan aurrera egiteko dituen lehia-baldintzak; horrek ondorioak ditu kontinentearen industrian, enpleguan eta subiranotasun energetikoan.

Nahia Sanzok Trumpen lehenengo urteko geopolitika aztertzen du petrolioaren eta energiaren bidez, eta erakusten du energia-fluxu globalen kontrolak bideratzen dituela sakabanatuak edo kaotikoak diruditen esku-hartzeak. Logika beraren barruan daude Venezuelaren aurkako itsas blokeoa, Iranen aurkako gerra, Ukrainiak Errusiako petrolio azpiegituraren kontra egindako erasoen babesa eta Europari ezarri nahi zaion mendekotasun strategikoa. Helburua da Txinak behar duen petrolio Washingtonen kontrolpean egotea, eta aliatu europarrak, segurtasunaren truke, AEBetako energiari, armamentuari eta teknologiari lotuta geratzea.

Trumpismoa kapitalaren eta biziaren arteko kontraesanaren esparru zabalenean kokatzen du **Yayo Herrerok**, eta ultraeskuinaren agerpena aztertzen du krisi ekosozialari emandako erantzun distopiko gisa. Planetaren bederatzi mugetatik zazpi gaudituta daudenean, eta polikrisi ekosozialak herritar gehienei modu desberdinean baina gero eta gehiago erasaten dienean, eskuin muturrak pagaburuak, espektakulu bihurtutako krudeltasuna eta baliabideen pilatze bortitza eskaintzen ditu erantzun gisa. Bide distopiko horren aurrean, nahikotasunean, birbanaketan eta pertsona guztientzako bizitza duin baten bermean oinarritutako trantsizio ekosozial justu baten gakoak proposatzen ditu artikuluak, eta aitortzen du alternatiba horrek eraldaketa kultural eta politiko handia eskatzen duela, oraindik ez baitago gailentzeko bezain antolatuta.

Dosierra **Juan Torresen** artikulu batekin amaitzen da. Aztergai orokorra egituratzen duten hiru galdera nagusiei erantzuten saiatzen da artikulua: zergatik sortu da trumpismoa kapitalismo errentatzailearen eta gainbehera inperial estatubatuarren adierazpen funtzional gisa?; zertarako balio du, benetan, bere erretorika populistatik haratago?; eta zer espero daiteke haren ondoren? Azken galdera horren erantzuna zalantzazkoa bezain deserosoa da. Kasurik onenean, beste presidente batek antzeko tresnekin kudeatuko du gainbehera estruktural berbera; kasurik txarrean, berriz, helburu berak baina eskrupulu gutxiago eta eskarmentu gehiago duen norbaitek egingo du. Dena den, trumpismoak iraun egingo du Trump joatean, baldin eta etorkizun hurbilean ez badira jorratzen sistemarentzat beharrezko bihurtu duten kausa estrukturalak, ez badira indar-posizioak hartzen erakundeak berenganatzen ari diren talde oligarkikoen aurrean eta ez badira erreforma sakonak egiten gobernantzan, ekoizteko moduan eta baliabideen, aberastasunaren eta boterearen banaketan.

Ez dugu uste behin betiko erantzunik aurkituko dugunik une zehatz honetan indarrean dagoen eta gertatzen ari den fenomeno batentzat, baina analisi-gakoak eta irismen luzeko perspektibak eskainiko ditugu, eta garai bat argiago ezagutzen eta azaltzen laguntzeko tresnak ere bai. Garai hori ezohiko fenomeno, formen eta arazoen bidez agertzen zaigunez, ezinbestekoa dugu beste modu batera pentsatzea. ■

Carles Manera

Balear Uharteetako Unibertsitateko katedraduna

1. Munduaren zatiketa

Trump suteak pizten ari da nazioartean. Sute guztiak dira tentsio betekoak, eta batere mespretxagarriak ez diren arriskuak dituzte. Venezuelan eta Karibean ezohiko hedapen militar ezarri du, Gerra Hotzaren amaieratik handiena, narkotrafikoa —hala diote— blokeatzeko; Nigerian justifikatzen zailak diren bonbardaketak egin ditu inon ez dauden zelula terroristei erasotzeko; Groenlandiari heldu dio, asmo anexionista argiekin, bertako aberastasunak harrapatzeko; Gazan, Israelgo gobernu genozidari laguntzen dio higiezinaren negozio mamitsuak egiteko; Ukrainan, Putinen tesiekin bat egin du, bertako lurraldea eta lur arraroak elkarbanatzeko; Irani ere eraso egin dio, Israelek akuilatuta eta Estatu Batuek babestutako gerrarekin, Txinarantz doazen petrolio-bidalketak kontrolatzeko. Fronte horiek guztiek bi bereizgarri dituzte.

Lehenik eta behin, arreta desbideratzea Estatu Batuetako barne-arazoetatik, Trumpen politikak larriagotu egin baititu. Hazkunde ekonomikoa mantsotu egin da —nahiz eta 2025eko azken hiruhilekoan eta 2026ko hasieran indarrari eutsi—, inflazioan tentsioak izaten hasi dira —Erreserba Federalaren helburua den % 2tik gora— eta, aldi berean, kontratazio berriak ahuldu egin dira. Gainera, Trumpen ospea amildu egin da, eta hori nabarmendu dute, besteak beste, *The New York Times* egunkariak eta CNN kateak. Eta, era berean, Estatu Batuetako hiri garrantzitsuetan aurrera egin du administrazio errepublikanoaren aurkako protesta zaratatsuak, demokraten aldeko emaitzekin.

Dena den, bigarren bereizgarriak gako ekonomikoak ditu argi eta garbi. Ez dira ari narkotrafikoa, terrorismoa eta arma nuklearrak pertsegitzen —iritzi publikoan funtzionatu ohi duten aitzakiak dira horiek—; errazago iritsi nahi dute energia-iturrietara, lehengaietara eta negozio partikularretara

Dena den, bigarren bereizgarriak gako ekonomikoak ditu argi eta garbi. Ez dira ari narkotrafikoa, terrorismoa eta arma nuklearrak pertsegitzen —iritzi publikoan funtzionatu ohi duten aitzakiak dira horiek—; errazago iritsi nahi dute energia-iturrietara, lehengaietara eta negozio partikularretara zein familiarretara. Testuinguru horretan, analista batzuek mundu mailako gatazka bat pizteko arriskua aipatu dute, ziurgabetasun-maila handiak eta Trumpen mugimendu espasmodikoek eta iragarriezonek eraginda.

zein familiarretara. Testuinguru horretan, analista batzuek mundu mailako gatazka bat pizteko arriskua aipatu dute, ziurgabetasun-maila handiak eta Trumpen mugimendu espasmodikoek eta iragarriezonek eraginda. Gai horiek dibulgatu egiten dira herritarrengan beldurra sortzen jarraitzeko, baina, hasiera batean, ekonomiaren ikuspegitik zaila da onartzea tamaina handiko gerra bat mantendu ahal denik. Arrazoi nagusi bat dago ezintasun horren atzean: enpresen irabaziak ziztu bizian doaz oraintxe bertan, eta hori enpresen balantzeetan eta burtsako mugimenduetan islatzen da (baita Teheranen aurkako aire-erasoetan ere). Ez da aukera ona desordena eta suntsipena sortzea hainbeste diru irabazten ari denean, nahiz eta, esan bezala, beti egon daitezkeen buruzagi eroen jarrera harrigarriak eta oldarkorrak.

2. Ekonomia aldakorra ziurgabetasun-garaian

Egin ditzagun, horri dagokionez, gogoeta ekonomiko batzuk.

Lehenik eta behin, Trumpen apustua mugazergen politika da. Hasiera batean, eta agintari errepublikanoaren proposamen erogarriei erreparatuta, hazkunde ekonomikoa jaitsi egingo zela, inflazioa igo egingo zela eta langabezia areagotu egingo zela zioten analisisiek. Hala eta guztiz, beste herrialdeek emandako erantzunen arabera aldatu dira muga-zerga horiek, eta tasak apaldu egin dira. Hortik datoz azken hilabeteetako emaitza makroekonomikoak: BPGa % 4 inguru igo da, nahiz eta prezioetan tentsioak nabari diren eta kontratazioa txikiagotu den.

Bigarrenik, etengabeko eraso errepresiboa jasaten ari dira goi-mailako hezkuntza- eta ikerketa-zentroak, 2.500 milioi dolarretik gora kendu dizkiete dirulaguntzetatik eta giza kapitalaren ihesa eragin dute. Gogoan eduki behar dugu, Bigarren Mundu Gerra bukatu zenetik, Estatu Batuek oinarri hauen gainean finkatu zutela beren boterea: inbertsioaren funtzioa, zerga-politika –aberatsei zerga altuak ezarrita– eta unibertsitate- eta ikerketa-zentroen paper erabakigarria. Erakunde bultzadak bide eman zion zientzialarien, intelektualen, ekonomialarien eta pentsalari humanisten lanari; horien ekarpenek zientziaren eta ezagutzaren aurrerapena sendotu zuten; eta, proiektu berritzaile horiei esker, handitu egin zen produktibitatea.

Hirugarren faktorea Erreserba Federalarekin (FED) eta haren gobernadore nagusi Jerome Powellekin dagoen liskar erradikala da. Langabeziaren eta inflazioaren datuak ikusita, argi dago zein den Powellen dilema. FEDen gainerako *board*ekin batera hartutako erabakietan zer baloratuko dute gehiago: interes-tasak mantentzea, igotzea edo jaistea? Hauteskunde-urtean, Trumpek tasak nabarmen jaistea eskatu du berriro, eta laster izango du bere aldeko goi-agintari bat banku zentrolean jartzeko aukera. Horrek guztiak, hau da, finantza-arautzaile nagusiak independentzia galduko duela pentsatzeak izua eragiten die inbertitzaileei.

Laugarren puntuan, inbertsio publikoaren planteamendurik eza da. Gastu militarrean izan ezik, murrizketa izugarriak gertatu dira etxebizitzan,

[...] Trumpen aberastasuna ia hirukoiztu egin da presidente denetik. Aberastasun hori kriptomona-proiektuetan oinarritzen da, baita atzerriko gobernuen adostasunean ere. Era berean, kapital-likidezia handia duten erregimenekin (Arabia eta Qatar, adibidez) duen harreman garrantzitsuak mesede egiten die agintari errepublikanoaren eta haren senideen higiezin-negozioei eta Estatu Batuetan gauza daitezkeen inbertsio-proiektuei.

osasunean eta klima-aldaketaren aurkako borrokan (% 20tik gora). Trumpek esan du milioi asko inbertituko dituela, baina propaganda-iragarki horien atzean proiektu pribatuak daude, eta ez gastu federala.

Bosgarren elementu bat ere nabarmendu behar da, aurreko lau faktoreetatik eratorritakoa: Trumpen aberastasuna ia hirukoiztu egin da presidente denetik. Aberastasun hori kriptomona-proiektuetan oinarritzen da, baita atzerriko gobernuen adostasunean ere. Era berean, kapital-likidezia handia duten erregimenekin (Arabia eta Qatar, adibidez) duen harreman garrantzitsuak mesede egiten die agintari errepublikanoaren eta haren senideen higiezin-negozioei eta Estatu Batuetan gauza daitezkeen inbertsio-proiektuei.

Branko Milanovick, Thomas Pikettyk eta Gabriel Zucmanen azken ikerketen arabera, marraztu ditugun bost alderdi horiek bat egiten dute ziurgabetasunean, aldakortasunean, merkatuen beldurrean eta desberdintasunaren areagotzean. Ezegonkortasun hori 2026an zehar luzatuko da, tentsio geopolitikoaren eraginez. Trumpek arma hori erabiliko du Estatu Batuek Txinaren aurrean jasan duten gainbehera ekonomikoa ezkutatzeko. Izan ere, Txinarena da, zalantzarik gabe, gorantz doan lidergoa.

3. Ondorioa

Suetonio eta Dion Kasio historialariek ziotenez, Kaligula enperadoreak erabaki xelebre bat hartu zuen gure aroko 40. Urtean. Haren ezegonkortasun mentalaren erakusle, kontsul izendatu zuen Incitatus izeneko bere zaldia. Ez dakigu zaldiak benetan hartu zuen kargu hori, zeren zesarrak zera frogatu nahi baitzuen: erakundeek ez zutela funtzionatzen eta edonork, zaldiak barne, bete zezakeela kargu bat haietan. Ia bi mila urte geroago, Donald Trumpek, *in pectore* enperadore gisa, hainbat izendapen garrantzitsu egin ditu bere hurbileko pertsonen artean. Bi bereizgarri dituzte izendapen horiek. Alde batetik, hautatuen gaitasunik eza azpimarratu behar da; eta, bestetik, mezu argia helarazi nahi izan die AEBetako erakundeei: edozeinek goberna dezake nazioaren edo inperioaren etorkizuna, baita politikan esperientziarik ez duten milioidunek ere. Negozio partikular bat kudeatzea balitz bezala: kontrapisurik gabe, kontrol-mekanismorik gabe, erakunde fiskalizatzailek gabe. Jarrera inperatibo horrek ondorio arriskutsua du: zalantzan jartzen du demokrazia. Hori bai, gorroto duten baina haien mesedetan erabili nahi duten estatu baten bermearekin. Horiek dira Trumpen zaldiak. Hondamendira garamatzate zaldun handiaren gidaritzapean, eta irrintzi euforikoak botatzen dituzte bidean barrena, dena suntsitzen duten heinean. Horrela aritzen zen Otzar, Atilak gidatzen zuen zaldia. Eta ongi dakigu zer ekarri zuen hunoen erregeak.

Hori guztia ipuin soil bat edo literatura izan liteke, baldin eta Trumpen zaldiak munduko ekonomiaren oinarritzko baliabideak eta nazioarteko transakzioen arauak suntsitzen ariko ez balira; eta Wall Streeteko burtsa-adierazle nagusiak aldi berean leherrarazten ariko ez balira. Hori guztia Amerika itxi baten txalo-zaparrada beroa jasotzen duten bitartean, ez baitakigu estatubatuar itxi horiek esnatzen ari ote diren zaldien kaskoen soinu miserablearen erruz. Eta kapitalismoaren kapitulu berri horren protagonista diren tekno-oligarkek ere txalo jotzen diote Kaligula berri, nartzisista, patetiko eta arriskutsuari.

Estatu Batuen bilakaera ekonomikoaren aurrean konfiantza galtzeak ezegonkortasuna areagotzen du. Datuak latzak dira: dolarren salmenta masiboaren aurrean, gero eta handiagoa da franko suitzarraren eta yen japoniarraren balioa; eta, aldi berean, Estatu Batuen zorra (30 urterako bonua, adibidez) % 5etik gorako errentagarritasunera hurbiltzen ari da, eta gero

[...] los equinos de Trump están contribuyendo a destruir los resortes básicos de la economía mundial y las normas de las transacciones internacionales, dinamitando en paralelo los principales indicadores bursátiles de Wall Street, con el enfervorizado aplauso de una América profunda que no sabemos si se va despertando tras el sórdido sonido de los cascos de esos caballos. Y con el patético —y peligroso— narcisismo del nuevo Calígula, aplaudido por una cohorte de tecno-oligarcas que protagonizan este nuevo episodio del capitalismo.

eta zailagoa da zor hori birfinantzatzea (zor federalak, 9 bilioi dolar, hilabete gutxiaren buruan beteko du epea). AEBetako kontsumitzaileek zuzenean jasango dituzte ondorio gaiztoak: tentsioak inflazioan eta lan-merkatuan. Ondare hori utziko du, hain zuzen ere, globalizaziotik onura handia jaso duen herrialde batean muga-zergak aplikatzearekin eta nazioari ustezko handitasuna itzultzearekin itsututa dagoen presidenteak. ■

Ignacio Muro Benayas

Ekonomilariak Krisiaren Aurrean elkarteko presidenteordea

Globalizazio neoliberalak marko egonkor bat eratu zuen ekoizpena espezializatzeko, baina 2008ko krisiak erakutsi zuen marko hori agortzen hasita zegoela.

Kalifornian diseinatzea eta Shenzhenen fabrikatzea zen korporazio handiek barneratutako lan-banaketaren logika. Eredu hori mundu osora esportatu zuten, Mendebaldearen nagusitasuna eta berrikuntzaren arloko lidergoa bultzatuko zituelakoan. Logika hori ekoizpen-sektore guztietara zabaldu zuten, elikaduratik hasi eta osasuneraino, automobilgintzatik hasi teknologia-enpresetaraino. Eta jarduera eta enplegu produktiboa Txinara eta Asiara eramane zizuten, pentsatuz desoreka horrek ez zuela boterearen grabitate-zentroa lekuz aldatuko.

Ezinezkoa zirudien lekualdaketa hura, ordea, gertatu egin zen, eta 2008ko krisi handia mugarri bihurtu zen aldaketa horretan.

Ordena globalaren erakarpen-gaitasuna, arauetan eta oreka sozialean oinarritua, desegin egin zen teknologien ideia teknobaikorraren eraginez. «Neoliberalismo zigortzaile» bat (William Davies)¹ sortu zen, eta bankuak erreskatatu zituen herri xeheari zergak areagotuz. Hainbat planotan gertatu ziren astinduak. AEBetan Tea Party jaio zen, bultzada errepublikano neokontserbadore berri baten oinarri herrikoia. Enpresa teknologikoek Obamari lagundu zioten, eta hark, trukean, funts publiko askotarako sarbidea eman zien eta espazioko lasterketa pribatizatzea onartu zuen. Handik gutxira, Troikak (NDF, BM eta EBZ) bere diziplina ezarri zuen Europako Hegoaldean, eta gupidarik gabe eraso egin zien Greziako ordena demokratikoari eta Syrizen ezkerreko gobernuari.

Estatu Batuetako eliteak sumatzen hasi ziren Txina berpizten ari zela, eta, aldi berean, erdi-mailako klaseak pobretzearen eta industria-enpleguak galtzearen ondorioak sentitu zituzten. Eta, pixkanaka-pixkanaka, enpresa horietako administrazioak onartzen hasi ziren gobernu-planei erabateko aldaketa eman behar zitzaie.

Ekialdetik zetozen abisuak 2015ean lehertu ziren, Txinak, Xi Jinpinggek zuzenduta, «Made in China 2025» estrategia abiarazi, eta autonomia teknologikorako borondate argia agertu zuenean.

2018an ekin zion Trumpek Huaweiren eta CTCren aurkako kanpainari. Huawei Android uztera behartu zuen 2019an, baina enpresak berehala erantzun zuen Harmony sistema eragilea kode irekian sortuz. Orain, sistema hori, mugikorren oinarria ez ezik, 1. belaunaldiko ibilgailu autonomoena ere bada.

Urte horietan, Txina AEBen botere hegemonikoaren alternatiba errealtzat jotzen zuten ebidentzia ugari agertu ziren, Txinak gaitasun handia baitzuen globalizazio multilateralaren ekoizpen-espezializazioa bere alde aprobetxatzeko. Analisi autokritiko argiena, ordea, Trumpen bigarren administrazioaren presidenteorde JD Vancek² egin zuen 2025eko martxoan, orduan adierazi baitzuen oker bat zela herrialdean sormen- eta diseinu-faseak bakarrik gauzatzea, berrikuntza bultzatzeko egokiak eta nahikoak zirelakoan. «Oker geunden. Gauzak fabrikatzen dituzten eremu geografikoak ere oso onak dira gauzak diseinatzen. Sare-efektuak daudenez, balio-katearen beheko muturrean hobera egin ahala, goiko muturrean ere hasi ziren gure parera iristen. Bi muturretatik estutu gintuzten».

AEBetako eliteek dagoeneko seguru zuten denborak Txinaren alde egiten zuela eta AEBek abisuak bidali

1. William Davies. *The Limits of Neoliberalism: Authority, Sovereignty and the Logic of Competition* (2014).

2. <https://www.presidency.ucsb.edu/documents/remarks-the-vice-president-the-american-dynamism-summit>

behar zizkiela Txinako sare geopolitikoaren parte diren herrialdeei, Venezuelari eta Irani bereziki. AEBek herrialde horiek aitzakiatzat erabili behar zituzten beren borondatea eta botere militarra erakusteko.

Hori da gertatu dena. Kontua da aldaketaren arrazoi sakonak eta nondik norakoak ezagutzea.

Inflexio-puntu erabakigarri bat COVID-19aren garaian gertatu zen. Krisi horrek beste era bateko botere inperialaren premiari nola eragin zion ulertzeko behar-beharrezkoa da, alde batetik, Txinaren indar teknologikoaren ezaugarriekin, eta, bestetik, enpresa teknologiko handien interesen bilakaerarekin lotzea. Bi elementu horiek nahikoak izan dira Trumpen Administrazioatik haratago doan botere-bloke bat osa dadin.

Bloke horren oinarriak ulertzeko, komenigarria da elementu horietan banan-banan sakontzea.

1. COVID-19, autonomia estrategikoa eta «inperialismo» berria

COVID-19a dimentsio globaleko shock bat izan zen berez. Laster geratu zen argi haren ondorioek botere estatubatuarraren oinarriak alda zitzaketela, harik eta AEBen hegemoniari eta segurtasun nazionalari betebete eragiteraino.

Itxuraz, ekoizpen-logiken kanpoaldean sortu zen, istripu bat bezala. Kapitalismoaren logikaz gaindiko zerbait omen zen, baina, hala ere, zerbait naturala izan zen Mundu Sistemarentzat, krisi ekologikoari adi zeudenek aspaldi iragarritakoa.

AEBek eraikitako lidergoaren oinarrian desoreka ekonomiko estrukturalak zeuden; alegia, kontu publikoetan eta kontu korronteko kanpo-balantzean adierazitako «defizit bikiak».³

3. 2024an, Estatu Batuetako defizit publikoa BPGaren % 7,26ra iritsi zen, eta azken 10 urteetako batez bestekoa % 5ekoa izan zen; haren zor publikoa BPGaren % 121era igo zen, 2018an baino hamabost puntu gehiago; eta kontu korrontearen defizita BPGaren % 3,9 izan zen, aurreko urtean baino % 25 gehiago eta azken 10 urteetako batez besteko % 2,8aren gainetik.



Globalizazio multilateralari eusten zioten hornidura-kateen bat-bateko hausturak berregituraketa produktiboa ekarriko zuen, eta horrek eragin handia izango zuen kapitalen merkatuetan. «Autonomia estrategikoa» bihurtu zen garai hartako leloa eta ideia nagusia, eta Estatu Batuetako eliteek berehala igarri zieten ideia horren arriskuei.

Alegia, potentzia bakoitzak bere hornidura estrategikoak barneratzen bazituen eta **globalizazioa eskualdeko blokeetan zatitzen bazen**, soberako kapital-fluxu globalak, ordura arte AEBetako ekonomiaren defizit estrukturalak finantzatzen zituztenak, murriztu egin zitezkeen eta herrialdeko ekonomia ito. Ordura arte kapitala AEBetara esportatzen zuten herrialdeek eta lurraldeek, autonomia estrategikoaren printzipioari jarraituz, onartu egin zuten beren erantzukizuna, eta barne-inbertsioko premia handienen kargu egin ziren.

AEBek hori galarazteko prest agertu behar zuten. Behar ziren urratsak eman behar zituzten, gutxienez, mundu garatua estutzeko eta «autonomia estrategiko» horri mugak jartzeko lau eremu erabakigarritan: teknologia, energia, defentsa eta merkataritza; esan nahi baita, garrantzitsua den guztian. Diziplina hori aplikatu behar zien bazkide nagusiei: Japoniari, Erresuma Batuari, Kanadari eta Koreari. Eta monarkia arabiarrei ere bai. Baina batez ere EBri, munduko merkataritza-gune nagusia izaki.

AEBek laster ulertu zuten defizit fiskalak eta komertzialak finantzatzea ahalbidetu zuen soberako kapital globala eskuratzeko ezinbestez eragotzi behar zietela beren espazio ekonomikoko herrialdeei, barne-inbertsio gisa, gizarteek eskatzen zizkieten interes orokorreko eskaerei erantzutea.

Trumpen gobernuak aldi berean erakutsi ditu kudeaketa kaotikoa eta morrontza ezartzeko gaitasun nabarmena. NATOko kide europarrek BPGren % 5 gastu militarra bideratzea lortu du. Presio horrek AEBei armak erostera behartzen ditu «aliatuak», eta inbertsio zuzeneko bolumen handiak egiteko konpromisoa ere hartu dute [...]

Aliatuei aplikatutako diziplina hori ordain gisa justifikatu izan da, esanez AEB bi ondasun global ematen dizkiela trukean: bakea, nagusitasun militarren ondorioz; eta dolarra, ordainbide global gisa. Baina biak ala biak, egiaz, bidesari bat dira, Txinaren erronka geostrategikoari berehala eta irmo aurre egin ahal izateko.

Trumpen gobernuak aldi berean erakutsi ditu kudeaketa kaotikoa eta morrontza ezartzeko gaitasun nabarmena. NATOko kide europarrek BPGren % 5 gastu militarra bideratzea lortu du. Presio horrek AEBei armak erostera behartzen ditu «aliatuak», eta inbertsio zuzeneko bolumen handiak egiteko konpromisoa ere hartu dute: 2 bilioi dolar Golkoko herrialdeek, 600.000 milioi EBk, 550.000 milioi Japoniak eta 350.000 milioi Hego Koreak. Aldi berean, aurrekoak (% 4,5) baino hiru aldiz handiagoak diren muga-zergak onartu dituzte. EBk, gainera, 750.000 milioi dolarreko balioa duten petrolioa eta eskistogasa erosteko konpromisoa hartu du.

2. Txinaren indar teknologikoaren ezaugarriak

Txinaren garapen ekonomikoaren funtsezko elementuak aztertzea funtsezkoa da mundua zein unetan dagoen ulertzeko.

Inbertsio produktiboa eta hazkundera dira Txinaren eredu ekonomikoaren mamia. Munduko Bankuaren datuen arabera, Txinaren inbertsio-ahalmena, «kapital finkoaren eraketa gordinen» adierazia,

bere BPGaren % 40an mantentzen da batez beste (2023an % 41,1), eta AEBena, berriz, BPGren % 22 inguruan. Hau da, kopuru erlatiboetan ia bikoiztu ez ezik, termino absolutuetan ere gainditu egiten du lehenak bigarrena.

Inbertsio hori guztia ekonomia produktibora eta produktibitatearen hazkunde metagarrietara bideratzen du Txinak. Azpiegitura publikoen programa bat ezartzen ari da. Abiadura handiko sareak lotzen ditu zubiekin, portuekin eta kanalekin, lurraldea egituratzeko eta logistika goitik behera aldatzeko. Horren ondorioz, urtetik urtera murriztu egiten dira transakzioen eta trukeen erantzun-denbora, hots, produktibitate agregatuaren funtsezko aldagaia.

Txinako Alderdi Komunistak zuzentzen du ekonomia; berrikuntza teknologikorako jarraibideak ezartzen ditu eta korporazio pribatu handiei aplikatzen die diziplina.

Marko ekonomikoa «goitik» kontrolatuta zehazten dira garapen-ardatzak eta «zer ekoitzi» behar den. Helburu hori lehenesten da «nola ekoitzi» behar den aldatzeko saiakeren aurretik; alegia, kapitalaren eta lanaren arteko harremanetan aldaketak bultzatzeko edo langileek kapitalean parte hartzeko sistemak bultzatzeko saiakeren aurretik. Enpresa-bertikaltasuna nagusitu egiten zaio demokrazia ekonomikoaren berezko gobernu korporatibo ona edo lan-harreman parte-hartzaileak ezartzeko borondateari, nahiz eta badauden borondate horri eusten dioten kasu aipagarriak (Huawey liderrean, adibidez, kapitalaren % 99 dago langileen esku).

Txinako estatuak marko arautzaile argiak ezartzen ditu sektore estrategikoetan (finantzak, energia, azpiegiturak, telekomunikazioak) pisu handia duten enpresa publiko handien bidez, baina onartu egiten du korporazio pribatu handien kudeaketa independentea, baldin eta mozkinen xedeak I+G+b programetan berrinbertitzea lehenesten badituzte dibidenduen banaketaren gainetik.

AEB eta Txina, gainera, bi berrikuntza-eredu ari dira aurrez aurre jartzen. AEB *startup* txikiekin elkartu zen, gero lider global bihurtu zirenekin. Haien helburua zen herritarren interakziorako zerbitzuetan dinamika berriak sortzea... baina herritarrak ekoizpen-prozesuetatik deskonektatuta. Txina buru duen prozesuen berrikuntza, aldiz, erabakigarria

izan da herrialdeko manufaktura-oinarri zabala bultzatzeko eta modernizatzeko. «Hiru industria berri» deiturikoe (ibilgailu elektrikoak, bateriak eta energia berriztagarria) dagoeneko % 40ko ekarpena egiten diote Txinako BPGaren hazkundeari.

Arrakasta horrek erakusten du, azken batean, nazio baten edo lurralde-komunitate baten ahalegina sinkronizatzeko eta berrikuntza hedatzeko eta barreiatzeko gaitasunak baldintzatzen duela aurrerapen teknologikoa; horrela lortzen da postuz igotzea eta produktibitate agregatua eta hazkunde potentziala sustatzea. Txinako Gobernuaren diru-laguntza programek ekoizpen-prozesuen fase guztiei eragiten diete, lehengaietatik hasi eta tarteko osagaietaraino eta azken produktuetaraino. Eskema horren helburua da «hutsetik ekosistema teknologiko berri bat garatzea», aurrez ikusi gabeko abiaduran eta eskalan. Ekosistema hori dagoeneko testatuta zegoen gama baxuko eta ertaineko fabrikazio produktuetan izandako esperientzia arrakastatsuen bidez.

3. Enpresa teknologikoen soberakina eta haien bilakaera

Jakina da zer-nolako gaitasuna duten enpresa teknologikoe erakartzeko eta eraldatzeko. Haien lidergo kulturalak eta teknologikoak mundu osoko klase ertainak liluratu ditu. Lidergo hori izan da AEBen botere bigunaren oinarrietako bat, baita neoliberalismoaren arrakastaren oinarrietako bat ere.

Gogoan izan behar dugu 2008an, krisiak eztanda egin zuenean, enpresa teknologikoe ez zutela oraindik pisu handirik boterean. Microsoft bakarrik zegoen Nasdaqen rankingaren gailurrean. Windowsi esker zegoen egoera horretan, ordenagailu eramangarrien merkatuaren % 93 hartzen baitzuen. Appelek musika-deskargak menderatzen zituen bere iPodarekin 2001etik, eta iPhonea kaleratu berri zuen. Google merkatu-hobiko teknologia bat zen, eta hasita zegoen Gmail publikoari irekitzen. Twitterrek hilabete gutxi zeramatzan bizirik; Facebookek ingelesez bakarrik funtzionatzen zuen; eta oraindik jaio gabe zegoen WhatsApp. Gizarteak estimatu egiten zuen bilatzaileak eta posta elektronikoa doan erabiltzea, eta hedabideek doako tresnatzat hartzen zituzten kostuak merkatzeko.

Produktibitatearen hobekuntzetan eta langileei jakintzatik gainbalioak ateratzean oinarritzea baino askoz ere errentagarriagoa eta merkeagoa zen bezeroengandik eta erabiltzaileengandik errentak jasotzea, estatu nazionalerako edo nazioz gairik erakundeetako (EB, esaterako) organo arautzaileetan lortutako pribilegioen babesarekin.

Ez zegoen argi nola monetizatu zitezkeen zerbitzu horiek. Hala ere, enpresa teknologikoe hasieratik zekiten besteen datuen kontrola eta ustiapena zela kapitalismo berriaren fase kognitiboaren funtsezko lehengaia.

«Zero» kostu marjinalerik, zortzi urte eskasetan lortu zuten Toyotak 80 urtean lortu zuen oligopolio globalaren maila. Laster ulertu zuten etorkizunean korporazio handien (energetikoak, farmazeutikoak, finantzarioak...) nagusitasunaren logikari jarraitu behar ziotela. Eta ulertu egin zuten, barne-berrikuntza baino gehiago, indar finantzarioa behar zutela dagoeneko testatutako proiektu berritzaile bati esker nabarmentzen zen edozein enpresa eskuratzeko. Logika finantzarioa gailendu zitzaion ekoizpen-logikari.

Produktibitatearen hobekuntzetan eta langileei jakintzatik gainbalioak ateratzean oinarritzea baino askoz ere errentagarriagoa eta merkeagoa zen bezeroengandik eta erabiltzaileengandik errentak jasotzea, estatu nazionalerako edo nazioz gairik erakundeetako (EB, esaterako) organo arautzaileetan lortutako pribilegioen babesarekin.

Logika berri horien ondorioz, balio handiko langileak kaleratzen hasi ziren AA aitzakiatzat hartuta, eta gero eta diru gehiago gastatzen hasi ziren erakundeak presionatzeko.⁴

Bi jokabide horiek erakusten dute enpresa teknologikoen soberakinak gero eta erauzleagoak direla.

4. <https://www.jornada.com.mx/2026/04/26/economia/013n2eco>

Horrek esan nahi du enpresa teknologikoek inolako lotsarik gabe sartu dutela beren negozio globala «estatuaren lehentasunen» artean, eta erreklamazio hori agerikoa izan da bi ebidentzia finkatu direnean. Lehena da Txinarekin lehiatu ahal izateko ezinbestekoak dituztela baliabide publikoak, eta horretarako ezinbestekoa zaiela AEBen botere ekonomikoari, finantzarioari eta militarri eusten laguntzea. Bigarrena da ezin dituztela kontrol politikoak saihestu izaera inperiala duen botere bati itsatsita egon gabe.

- Hasteko, haien herrialdeko kontrolak. 2025ean, teknologien babesa lortu zuenean, Trumpek «Tech First» leloa atera zuen boterera igo bezain laster, eta horrela eten zuen Bidenen gobernuak sinatutako zerga-arloko edozein akordio.
- Ondoren beste estatu batzuetako kontrolak datoz; batik bat, EBk, Kanadak eta Australiak ezarri nahi dituzten gero eta erregulazio handiagoak.

EBrekiko interbentzionismo antierregulatzaila, basailutza gisa erabilitako muga-zergen politikak edo lur arraroen aztarnategiak bereganatzeko obsesioa norabide horretan doazen ekintzak dira, baita barneko kontrabotereen desmuntatzea ere. Industriaren susperraldia ez da hori justifikatzeko erretorika publikoa baino.

Trumpi babesa ematea beste urrats baino ez zen izan. Badirudi enpresa horien kudeatzaileek sinetsi egin zutela beren negozioa, berrikuntza kognitiboan aurreratuena, gero eta gehiago zegoela dimentsio globaleko erauzketa-negozio bikoitz baten mende. Alde batetik, dimentsio kognitiboan, «datu-meatzaritzaren» mende, datuak baitira Big Dataren oinarria. Beste alde batetik, «lur arraroen» meatzaritzaren mende, lur arraroetatik ateratzen baitira datu-bankuen euskarri fisikoak. Bi meatzaritzak ezinbestekoak dira AArentzat.

Hori onartzeak eraman ditu ezagutzen den negozioarik primarioenerantz, hau da, meatzaritza tradizionalerantz. Babiloniako antzinako garaietatik, negozio-mota horrek botere militarra erabili izan du besteen baliabideez jabetzeko.

Horrek esan nahi du enpresa teknologikoek inolako lotsarik gabe sartu dutela beren negozio globala «estatuaren lehentasunen» artean, eta erreklamazio hori agerikoa izan da bi ebidentzia finkatu direnean. Lehena da Txinarekin lehiatu ahal izateko ezinbestekoak dituztela baliabide publikoak, eta horretarako ezinbestekoa zaiela AEBen botere ekonomikoari, finantzarioari eta militarri eusten laguntzea. Bigarrena da ezin dituztela kontrol politikoak saihestu izaera inperiala duen botere bati itsatsita egon gabe.

4. Trump eta botere bloke berri baten eraketa

Dudarik gabe, gaur egungo egoerak jarraipena ematen dio Daviesek 2008ko krisian kokatu zuen logika neoliberal zigortzaileari, baina Trumpek koska bat gehiago estutu du. Trump beste zerbait da, boterea bere gordintasunean, apetatsua, gupidagabea baliabide zuzenen erabileran, metaforarik gabeko botere bat.

Pertsonalista da eta, beraz, iragankorra, baina hori baino gehiago da. Aldaketa sistemiko bat ere bada. Estatuaren birkonfigurazio bat, estatu hori indarra erabiltzeko zalantzarik ez duen botere-bloke berri baten zerbitzura egon dadin.

Argi dago Silicon Valley, Wall Street eta Pentagonoa elkarrri lotuta daudela, eta erauzketa-industria tradizionalekin (petrolio eta fracking-gasa) lotuta ere bai. Denen artean biltzen dituzte kotizazio-enpresa nagusiak, AAren eta Txinarekiko lehiarekin lotutako kapital- eta inbertsio-eskari handia duen une batean. Ez dugu ahaztu behar datu-megazentroekin lotutako funtsek 350.000 milioi dolar hartu zituztela 2025ean; 2026an, berriz, 500.000 milioi euro hartuko omen dituzte.

Kanpotik lortu behar dituzte funts horietako asko; hein handi bat Golkoko monarkietatik, EBtik eta beste aliatu batzuetatik. Beste herrialde batzuetako baliabideak eta errentak eskuratzeko lehia oldarkorra biziraupen-kontua da.



Irudia: Igor Omilaeu (Unsplash).

Trumpek ez dirudi gertaera isolatu bat, munduko hegemonia lortzeko lehian. Potentzia menderatzailea izaki, AEBek norabide aldaketa bat behar dute eta, beraz, martxan dauden politika askok gobernu honen ondoren ere iraungo dute, nahiz eta itxuran aldaketa bat gertatu.

Une honen beste bereizgarri bat boterearen bitartekaritzak desegitea da. Amerika korporatiboko pertsona ospetsuek aurrerapauso bat ematen dute zuzenean, eta gutxitan eta maila apalagoko postuetan soilik baliatzen da politikari profesionalen eskarmentua.

Botere-eskema berriaren epe luzerako bokazioa da hirugarren bereizgarria. Hori erakusten du Trumpekin lotura handia duten pertsonen komunikabide tradizionalak eta berriak (Washington Post, CBS, CNN, Tictok) kontrolatzeko duten borondateak. Bokazio globaleko proiektu erreakzionario bat da, eta garatutako nazioetara esportatzen da, eskuin muturreko alderdiak babestuz. Botere berriak alderdi horiek hauspotu nahi ditu beren estatu nazionalako gobernuraino, edozein kontrabotereri diziplina aplikatu diezaioten.

Enpresa teknologikoen lidergoa nabaria da botere berri horretan. Haien hegemoniak botere bortitza bat behar du. Enpresa teknologikoek estatuaren baliabideak behar dituzte Txinarekin duten borroka teknologikoan beren lehiakortasuna hobetzeko, Txina etengabe ari baita gorantz.

Onorioak

Trumpek ez dirudi gertaera isolatu bat, munduko hegemonia lortzeko lehian. Potentzia menderatzailea izaki, AEBek norabide aldaketa bat behar dute eta, beraz, martxan dauden politika askok gobernu honen ondoren ere iraungo dute, nahiz eta itxuran aldaketa bat gertatu.

Paradoxikoki, datorrenari ezin diogu *ordena berria* deitu, baizik eta desordenaren beharrezko etapa bat, non EBk oztopo handiak izango dituen arlo erabakigarrienetan gutxieneko autonomia estrategikoari eusteko.

Hegemonia lortzeko lehia erritmo- eta epe-kontua da. Txinak lasaitasuna eta denbora behar ditu goranzko potentzia gisa epe ertainera eta luzera garatzeko; AEBk, aldiz, tentsioak sustatu behar ditu, «kaosa erein» behar du, tentsio-fokuak eta ezegonkortasuna behar ditu behin eta berriz, Txinaren hedapen-erritmo etengabea oztopatzeko. Agertoki horrek markatuko du, seguru asko, hurrengo hamarkada, baita hurrengoa ere agian. ■

Jorge Pérez

Ekonomian doktorea eta Espainiako Bankuko Kontabilitate Erregulazioko buru ohia.

Kanadako presidente eta Ingalaterrako Bankuko gobernadore ohi Mark Carneyk hau adierazi zuen Davosen: «munduko ordena zaharra hilda dago». Ordena horretan sartzen da AEBetako dolarrak duela 80 urte baino gehiagotik menderatutako Nazioarteko Moneta Sistema; hau da, lehendabizi Bretton Woodseko Akordioen indarraldian (1944-1973), eta 1974ko ekainetik, petrolioaren lehen krisiaren ondoren (1973ko urria), petrolioaren ekoizten zuten herrialde arabiar nagusiek (bereziki Saudi Arabia) beren petrolioaren dolarretan soilik saltzea onartu zutenean, babes militarren eta nazioarteko laguntza estrategikoaren truke, Nazioarteko Moneta Fondoan (NMF) haien partaidetza eta boto-eskubideak % 5etik % 10era igotzea barne, herrialde industrialen kontura.

Gaur egungo Nazioarteko Moneta Sistema, funtsean AEBetako dolarrean oinarritzen dena, ez da bizirik aterako, libera esterlinan oinarritutakoa edo franko frantsesean oinarritutakoa bizirik atera ez ziren bezala. Donald Trumpen bigarren presidentetza honetan gertatzen ari denaren alderdi garrantzitsu bat, agian, funtsezko galdera bati erantzuteko beharragatik azaldu daiteke: Zer motatako moneta beharko genuke nazioarteko finantza-sistema seguru bat izateko, finantza-egonkortasuna eta mundu-hazkunde ordenatua erraztuko dituen? Izan ere, proposamen horietarako sortu zen NMF 1944an. Historian zenbait saiakera egin ziren horri irtenbidea emateko, besteak beste, Urrezko Patroia, Urre Aldaketako Patroia eta 1944an Bretton Woodsen hartutako sistema; eta gaur egungo sistema erabat fiduziariora da, eta kanbio-tasa flotatzaileak ditu. Horiek guztiak kolapsatu egin ziren sortu zituzten krisien ondorioz, krisi horietako bakoitza aurrekoa baino biziagoa eta sakonagoa izanik.

2007ko krisia benetako kolpe latza izan zen Nazioarteko Moneta Sistemarentzat. Izan ere, ez zen aurrekoak bezalako krisi finantzarioa izan. Makroekonomistek aurrezkiaren eta inbertsioaren arteko desoreka-terminoetan pentsatzen dute, eta beldur ziren dolarra hondoratu egingo ote zen Txinak AEBetako Altxorraren bonuen eskaria murrizten bazuen, eta AEBek kanpo-merkataritzako defizit izugarria finantzatzea lortzen



Irudia: Igor Stevanovic (Adobe Stock).

ez bazuen. AEBetako merkataritza-defizit izugarriak adierazten du estatubatuarrek ekoizten dutena baino gehiago gastatzen dutela eta beren aukeren gainetik bizi direla. Halaber, AEBetako merkataritza-defizit sakon horrek agerian uzten ditu dolarrean oinarritutako Munduko Moneta Sistema baten kontraesanak, herrialdeek dolarrak pilatu behar baitituzte, eta, hori egitean, estatubatuarren ohitura xahutzaileetan laguntzen baitute.

Eta, hala ere, 2007ko finantza-krisiaren arrazoiak beste leku batean zeuden: 90eko hamarkadaz geroztik finantza-merkatuetan izandako desarautze zoroan, behar zuten kapitalaren zenbatespena bankuen esku uzten zuen banku-erregulazioan, eta AEBetan (Dorre Bikien 2001eko atentatuen ondoren) eta Europan (2000. urtean euroa indarrean sartu ondoren) izandako interes-tasen murrizketa nabarmenean.

Horri guztiari erantzunez, AEBetako bankuek eta Europakoek gero eta jarduera arriskutsu eta espekulatiboagoetara jo zuten, errentagarritasun handiagoa eta, batez ere, beren exekutiboentzako hobari handiagoak lortzeko. Finantza-sistema zaintzeaz arduratzen ziren agintarien artean (Nazioarteko Moneta Fondoa buru zela) makroekonomista ugari zeuden, bankuen balantzeetan arriskuak identifikatzen zekiten kontableak izan beharrean, horiek baitziren gainazaletik behera zelatan zeudenak. Estatubatuarren zorpetzearen zati handi bat, alde batetik, beste herrialde batzuetako produktuak kontsumitzeagatik

sortu zen, eta horrek beren industria hondatzen zuen; eta, bestetik, bankuek gero eta zorroztasun txikiagoarekin edo zorroztasunik gabe (*subprime*) emandako hipoteka-maileguen bidez etxebizitzak erosteak eragin zuen, eta hipoteka horiek, azkenean, banku-balantzeetatik atera, eta bildu eta EBn eta Japonian saltzen ziren, funtsean. Honela deitu zitzaion banku-ereduari: «banatzeko sortu». 2007ko krisiaren ironikoa izan zen herrialde aurreratuek pairatu zutela, eta ez gorabidean zeudenek, nahiz eta horiei ematen zitzaizkien etengabe banku-gainbegiratzearen, gobernantzaren eta gardentasunaren irakaspenak. Herrialde aurreratuetako errealitatetik ezin urrunago. Beren irabazietan akziodunen irabazietan baino interes handiagoa zuten banku-administratzaileengan eta bankarien politikei mugarik ez jartzeaz gain beste alde batera begiratzen zuten ikuskatzaileengan zeuden arazoak.

Arriskuak bi gertakariengatik egin ziren agerikoak: finantza-krisiak inbertsio-fondo handiei eta oso banku garrantzitsuei eragin zien, eta nahiz eta Ameriketako Estatu Batuak epizentroa izan, krisia ez zen herrialde horretara mugatu eta, beste batzuetan ere izan zuen eragina, bereziki eurogunean; Espainian eta Irlandan, batez ere. Krisia lehertu zenean, Erreserba Federalaren (FED) erreakzioa dolarraren kanbio-tasa beste inongo monetarekin defendatu behar ez izateko askatasuna erabiltzea izan zen. Krisi-garai guztietan, likidezia da ondasunik preziatuena, eta, beraz, FEDek merkaturak dolarrez bete zuen (787.000 milioi dolar), bere ekonomiari eusteko eta bere bankuak salbatzeko. Bankuak babesteko egiturak arazoak eragin zituzkien beste herrialde batzuetako bankuei, dolarretan zorpetu, eta arazoak izaten hasi zirelako haiek itzultzeko. FEDek elkarrekiko kreditu-lerroak (*swaps*) adostu zituen zenbait banku zentralekin (herrialde aberatsetakoekin bakarrik), publizitate gutxirekin, Kongresuak beste herrialde batzuetako bankuak erreskatatzen laguntzeari uko egin ez ziezaion. Era berean, ez zegoen bermatuta FEDek beti horrela erantzungo zuenik, ezta Kongresuak atzerriko bankuen erreskateak baimenduko zituenik ere.

2007ko finantza-krisia eta Ameriketako Estatu Batuetako agintariekin hari aurre egiteko modua oso bestelakoak izan ziren aurreko beste banku-krisietan gertatutakoarekin alderatuta; izan ere, orduan, kanbio-tasarekin lotutako konpromisoen ondorioz, Banku Zentralek ez zuten banku-krisiei aurre egin behar, bankuei likidezia injeztatuz, haien kaudimena seriotasunez kontuan hartu gabe. Kanbio-tasa

defendatu beharrik gabe, FEDek bere banku eta finantza-merkatuetan likidezia injeztatzearen aldeko apustua egin zuen. Kanbio-tasa egonkortu egin zen, eta dolarra nabarmen indartu zen. Dolarrak munduko erreserba-moneta gisa duen estatusaren eta Ameriketako Estatu Batuetako Altxorraren bonua munduko finantza-aktiborik handiena eta likidoena izatearen isla zen hori.

2007ko krisiaren ondorioz, dolarra munduko merkataritzarako erreferentziazko moneta gisa aldatzeko dozenaka proposamen izan ziren, NMFk jaulkitako igorpen-eskubide berezien garapen handiagoa edo BRICek planteatutako herrialdeen arteko akordioen bilaketa barne. Eztabaida handia egon da, baina aldaketa estruktural sakon gutxi. Izan ere, kredituan oinarritutako herrialde bateko moneta (dolarra orain) nazioarteko erreserba-moneta gisa onartzeak, historian inoiz ikusi ez denak, dilema bat (Triffinen dilema) eragiten dio etengabe herrialde jaulkitzaileari, helburu nazionalak lortzearen eta beste herrialde batzuek moneta hori lortzeko egindako eskaria asetzearen artean. 2007ko krisiaren hasierak eta mundu osoan zabaltzeak biziki islatu zituzten egungo Nazioarteko Moneta Sistemaren berezko ahultasunak eta arrisku sistemikoak. Izan ere, moneta nazional bat lehengaien prezioa finkatzeko, nazioarteko transakzio komertzialak likidatzeko eta erreserba globaleko moneta izateko erabiltzen denean, moneta-agintaritzak jaulkitzaileek desorekak kanbio-tasaren bidez zuzentzeko egiten dituzten ahaleginak ez dira eraginkorrak izaten, moneta horrek beste askoren erreferentzia gisa funtzionatzen baitu. 1973an Bretton Woods behin betiko utzi ondoren, banku-krisien (2007koa, batez ere) maiztasunak eta intentsitateak (eta Ameriketako Estatu Batuek horiei heltzeko moduak) erakusten dute munduko gainerako herrialdeetarako kostuak irabaziak baino handiagoak izan daitezkeela jada.

Dolarra moneta-sistemaren erreserba-moneta bihurtzea ez zen izan, noski, Ameriketako Estatu Batuetako egungo administrazioaren erabakia, baina administrazio horrek, agian, moneta ordeztu beharraren ondorioak jasango ditu. 1943an, Keynesen moneta-erreformaren proposamena atzera bota zen, eta 1944an Bretton Woodsen AEBetako ordezkariaren buru zen Harry White ekonomialariak aurkeztutakoa onartu zen, munduko merkataritzako moneta gisa libera ordezkatzeko behin eta berriz egin zuen ahaleginaren aurrean. Ameriketako Estatu Batuak moneta-inperio bihurtzeko nahia

Keynesek berak pozoitutako kalizatzat kalifikatu zuen, zeinetatik memeloek edaten duten, beren nagusitasuna betierekoa dela sinetsita. Duela 80 urte baino gehiago, Keynesek, bere ohiko argitasunarekin, gaur egun munduak eta Ameriketako Estatu Batuek duten arazoaz ohartarazi zuen: dolarra munduko erreferentziazko moneta izatea.

Izan ere, munduko erreserba-moneta izateak arazoak sortu dizkio munduari, bai eta Ameriketako Estatu Batuei ere. Dolar estatubatuarra nazioarteko ia transakzio guztietarako erabiltzen denez, eta Ameriketako Estatu Batuek planetako ekonomiarik indartsuena eta kapital-merkatu garatuenak dituztenez, dolarra nabarmen gainbaloratuta dago. Horren ondorioz, AEBetako manufaktura-industria ez da oso lehiakorra, eta finantza-sektorea oso oparoa da. Testuinguru horretan, erraz uler daiteke AEBetako herri-klaseak, pozik ez daudenez eta baztertuta daudenez, ideia politiko populisten jomuga erraza izatea, traizionatuak izatearen haien sentimenduak esplotatzeko.

Nahiz eta moneta nazionalak (adibidez, dolarra, renminbia edo euroa) nagusi izan Nazioarteko Moneta Sistemaren alternatiba posiblei buruzko pentsamendu ofizial eta akademikoan, pertsona batzuek galdetzen dute ea finantza-sistemaren etorkizuna ez ote liratekeen izango *Distributed Ledger Technology* izenekoan oinarritutako produktu digital enkriptatuak eta transakzio-kateak (*Blockchain*), horiek kontabilitate-erregistroko alternatiba bat eskaintzen baitute, inolako finantza-bitartekariengana jo beharrik gabe. Ezer baino lehen, argitu behar da produktu-mota horiek ez direla inola ere moneta bat, eta horietako batzuk ez direla aktibo bat ere, identifikatutako edo identifikatzeko moduko kutxa-fluxurik ez dutelako. Produktu horiei moneta esatea beti izan da gaizkien informatuta daudenen artean nahasketa eragiteko moduko akats bat, ez baitira ez kontu-unitatea, ez balio-erreserba egonkorra.

Bitcoina produktu digital enkriptatu ezagunenetako bat da. Dolarra ordeztu al lezake nazioarteko ordainketa-moneta gisa? Enpresari digitalentzat eta arriskuaren zaleentzat, bai. Baina arazoa da bitcoina eta horren lehiakideak ez direla, berez, kontu-unitate bat, ezta balio fidagarri bat ere, prezioaren igoera eta jaitsiera etengabeek agerian uzten duten bezala; esate baterako, ia 125.000 dolarretik (2025eko iraila) 69.000 dolarrera (2026ko apirila) pasatzea. Beste era batera esanda, esportatzaile batentzat bitcoinak ez dira dolarretako banku-gordailu bat baino

alternatiba interesgarriagoa. Bitcoinaren prezio-aldakortasunak mugatu egiten du kontu-unitate gisa duen erakargarritasuna; ezin da izan petrolio edo beste edozein lehengai salerosteko kontratuak adierazteko kontu-unitate erakargarria.

Prezioen aldakortasunaren arazoa *moneta egonkor* deiturikoen bidez konpon liteke. Horiek finantza-eramaile batek (fondo batek) jaulkitako finantza-aktibo digitalak dira, erreferentziazko aktibo edo aktibomultzo batekiko balio egonkor samarra dutenak, zor publikoa, oro har (adibidez, Tether). Bitcoinak eta bere lehiakideak (Ethereum, etab.) ez dute legezko jaulkitzailerik eta kontrapartidako aktiborik; horiek ez bezala, moneta egonkorrek jaulkitzailea dute, bai eta aktiboak ere, eta aktibo horietan inbertitzen dira bildutako baliabideak. Moneta egonkor horietako batzuk erabat bermatuta daude, kreditu-arriskurik gabeko aktiboetan inbertitzen delako, jaulkitako moneta egonkorren kantitate baliokidetan. Hala ere, garestia da moneta-mota hori mantentzea, moneta egonkor berri bat sortzeko beharrezkoa baita arriskurik gabeko inbertsio bat eskuratzea. Horrenbestez, norbaitek nahiago izango zuen dolar bat (adibidez) dolar baten balioa duen moneta egonkor baten truke aldatzea. Ez du ematen negozio hori oso erakargarria denik, zerga-iheserako, diru-zuriketarako eta moneta egonkor horiek eman dezaketen anonimotasuna bilatzen duten jardueretarako izan ezik. Izaera berezi hori dela-eta, gobernuek ez lukete haiek asko irautea utzi beharko.

Moneta egonkorren beste formatu baten balioa ez dago bermatuta, eta, horregatik, merkeagoak dira sortzeko. Aldaera horretan, bildutako baliabideen zati bat soilik inbertitzen da kreditu-arriskurik gabeko aktiboetan (zor publikoa), eta gainerakoa, berriz, gutxi gorabehera likidoak diren baina interesak ordaintzen dituzten bonuetan inbertitzen da. Jaulkipenak ez dira moneta digitalak, bonu digitalak baizik, zenbait epetan, eta interesak ordaintzen dituzte, baina ez bermatuak (adibidez, *DAI savings*). Ez da zaila moneta egonkor horien ahultasunak zein diren jakitea. Bermatuta ez daudenez, inork ez ditu galerak bere gain hartu nahi izango, eta, beraz, moneta-mota horretan inbertitzen dutenek ohiko banku batekin egingo luketen bezala jokatuko dute (banku-izua).

Horregatik, ez da erraza gaizki deitutako *moneta digital* horiek banku zentralek sortu nahi dituztenen aldean bizirik irautea, besteak beste, Europako Banku Zentralak sortu nahi dituenen aldean. Horrek aukera emango lioke edozein pertsonari edo enpresari banku

zentrolean kontu digitalak izateko, eta ez soilik banku komertzialei. Lehen begiratuan oso erakargarria dirudien ideiak baditu zailtasunak. Gordailuak banku pribatu batean edo banku zentrolean izatearen dilemaren aurrean, argi dago zer egingo luketen pertsona zuhurrek. Horren ondorioz, banku pribatuek erakargarritasuna galduko lukete publikoaren gordailuak mantentzeko eta haiekin maileguak finantzatu ahal izateko. Kasu horretan, banku zentralak bilduko du herritarren ageriko aurrekia, eta horrek eragina izango du banku pribatuak kreditua esleitzeko egiten duen prozesuan. Hori guztia, alde batera utzi gabe banku zentralak jaulkitako moneta digital bat oso xede erakargarria dela delitugileentzat. Moneta horien segurtasunak eztabaida ezina izan beharko luke erabat.

Ehun banku zentral baino gehiago ari dira moneta horien ezarpena aztertzen. Banku zentral guztiek moneta digitalak jaulki eta herritarrei eskuragarritasuna eman arren, horrek ez du Nazioarteko Moneta Sistema nabarmen aldatuko. Inportatzaileek eta esportatzaileek beren banku zentrolei emango liekete ordaintzeko edo kobratzeko agindua, baina moneten (dolarra, euroa, renminbia, etab.) funtzioa ez da aldatuko. Beste era batera esanda, moneta digitalek ez dute dolarrak menderatutako Nazioarteko Moneta Sistemaren egungo arazoa konpontuko. Dolarraren esperientziaren ondoren, zaila da beste herrialde bateko moneta, Txinakoa izan edo beste edozein herrialdeetako izan, munduko erreserba-moneta bihurtzea, konfiantza beste ordainik gabe. Oraingoz, AEBetako Altxorren bonuek eskaintzen dituzten sakontasunak eta likideziak eta FEDek banku-krisiei eta merkatuen krisiei heltzeko duen bizitasunak beste proposamen batzuek (adibidez, euroak, renminbiak...) baino segurtasun handiagoa ematen diete inbertitzaileei. Baina, hala ere, ezinbestekoa da gaiari heltzea, ezerk ez baitu bermatzen iraganean gutxi gorabehera ondo funtzionatu duenak etorkizunean ere ondo funtzionatuko duenik.

Egokiena izango litzateke edozein naziotatik deskonektatuta dagoen eta denboran zehar egonkor egon daitekeen erreserba-moneta bat erabiltzen duen Nazioarteko Moneta Sistema bat izatea. Hori ez da berria. 1943an, Keynesek nazioarteko moneta independente bat proposatu zuen, eta *bancor* izena jarri zion. Moneta hori zabalki merkaturatutako 30 lehengairen balioan oinarritzen zen, lehengai horiek munduko merkataritzan zuten pisuaren, industrian zuten garrantziaren eta merkatuan zuten

egonkortasunaren arabera haztatuta. Lehengai horien behin betiko zerrenda inoiz argitaratu ez bazen ere, asmoa zen lehengaien saski horrek munduko ekoizpenerako garrantzitsuenak barne hartzea, munduko ekonomiak benetan ekoizten duenaren batez besteko prezioa islatzeko. Hala, *bancor*ak balio egonkorragoa izango luke, globala izango litzateke eta ez nazionala, eta munduko ekonomiaren ekoizpen erreala islatuko luke. Sistemak banka komertzialaren printzipioetan oinarrituta funtzionatuko luke, munduko konpentsazio-ganbera handi bat balitz bezala: Konpentsazio Batasuna. Herrialde batek esportatutakoan, *bancor*ak jasoko lituzke, eta inportatutakoan, *bancor*en bidez ordainduko luke. *Bancor*a nazioarteko erosketa-ahalmena izango lukeen moneta bat izango litzateke, moneta nazional guzti-guztien terminotan. Konpentsazio Batasuna banku zentralen artean likidatzeko zeuden saldoak likidatzeko soilik erabiliko litzateke, baina, halaber, posible izango litzateke herrialde defizitarioei maileguak ematea, soberakinak zituzten herrialdeen saldo hartzekodunak erabiliz, baina zenbait mugarekin, inflazio-joerak saihesteko. Keynesek asmatutako sistemak *bancor* asko pilotzen zituztenak (esportatzaileak) eta *bancor* asko zor zituztenak (inportatzaileak) zigortuko lituzke, helburua baita merkataritza global orekatua izatea eta doikuntzak beti herrialde ahulek jasan behar ez izatea.

Trumpen Estatu Batuak alternatiba horien eta horiek planteatzen dituzten dilemen artean mugitzen dira, eta horrek, agian, erabakiak hartzerakoan Trumpek dituen joan-etorriak azaldu ditzake. Zentzuz sinets al daiteke kriptomoneten aldeko Trumpen apustua aukera errealista bat dela benetan dolarraren nagusitasuna bermatzeko? Euts al diezaioke Ameriketako Estatu Batuek beren dibisari nazioarteko erreferentzia gisa, beren industria-gainbehera areagotu gabe? AEBetako korporazio handiekin lotutako moneta egonkorak sustatzeak benetan indartzen al du dolarra eta konpontzen al du arazoa?

Badirudi gauza bat argi dagoela: aukera bideragarrienak, egonkortasun eta kaudimen handienak ekar ditzaketanak, multilateralitate handiena eta adostasun zabalenak eskatzen dituztenak dira. AEBek, Trump buru dela edo beste edozein presidente izanik, beren burua salbatzea aukeratzen badute dolarraren krisiari eta, hedaduraz, nazioarteko moneta sistemaren krisiari aurre egiteko, ezegonkortasun handiagoa espero daiteke, eta, agian, era guztietako gatazka ugariagoak. ■

Xulio Ríos

Txinako Politikaren Behatokiko aholkulari emeritua*

Nahiz eta Txina Barack Obamaren Administrazioan jada hartzen zen lehiakide estrategiko gisa —*pivot to Asia* deiturikotik eta Txinako igoera teknologiko eta militarrekiko kezka gero eta handiagotik aurrera— Donald Trumpen lehen agintaldian finkatu zen erabat ikuspegi hori, eta AEBetako kanpo-politikaren ardatz estruktural bihurtu zen. Orduetik aurrera, Txinarekiko lehia fenomeno sektorial edo aldi baterako fenomeno gisa hartzeari utzi zitzaion, eta nazioarteko harremanak interpretatzeko esparru orokor bihurtu zen, inplikazio ekonomiko, teknologiko, militar eta ideologikoekin.

Bira estrategiko horren adierazpen nagusien artean, lehenik eta behin, Txina «lehiakide estrategiko» gisa ofizialki birdefinitu izana nabarmendu beharko litzateke. 2017ko Segurtasun Nazionalako Estrategiak eta 2018ko Defentsa Nazionalako Estrategiak esplizituki identifikatu zuten Txina AEBetako nagusitasunari aurre egiteko gai zen lehiakide sistemiko gisa. Horrek aurreko paradigma behin betiko uztea ekarri zuen. Paradigma horren arabera, Txina nazioarteko ordena liberallean ekonomikoki integratuz gero, Mendebaldearekin pixkanaka bat egingo luke politikoki eta arauen aldetik.

Zalantzarik gabe, merkataritzarekin eta mugazergekin lotutako gerra aro berriaren sinbolorik nabariena bihurtu zen. Muga-zergak ezartzeak agerian utzi zuen Washingtonek desoreka estrukturaltzat jotzen zuena zuzentzeko borondatea zutela Ameriketako Estatu Batuek; hau da, defizit komertziala, teknologiaren transferentzia behartua, estatuaren dirulaguntzak eta desleialtzat jotzen diren praktika industrialak. Horrela, erlazio ekonomikoa gero eta gehiago zaurgarritasun estrategikoaren terminotan hasi zen interpretatzen, eta ez soilik interdependentzia onuragarriaren terminotan.

Lehia teknologikoaren pixkanakako sekuritizazioaren adibide bat, batez ere etorkizuneko hegemoniarako kritikotzat jotzen diren sektoreetan (erdieroaleak, adimen artifiziala, telekomunikazioak, konputazio kuantikoa edo bioteknologia), Huaweiren kasua izan zen; inflexio-puntu bat izan zen, gai komertzial gisa ez ezik segurtasun nazionalako eta azpiegitura estrategikoen kontroleko arazo gisa ere planteatu baitzen.

Kontuak horrela, sentikortzat jotako mendekotasunak murriztera bideratutako desakoplamendu partzialeko logika (*decoupling*) sendotzeak bedeinkazio guztiak jaso zituen. Lotura ekonomikoa inoiz erabat hautsi ez zen arren—nekez bideragarria zen interdependentziaren sakontasunaren ondorioz—, bai hasi ziren bultzatzen hornidura-kateen dibertsifikazioa, inbertsioei jarritako murrizketak eta teknologia aurreratuen esportazioen kontrolak.

Kontzeptualari dagokionez, diskurtso ideologikoa gogortutakoan, lehia estatuen arteko botere-borrokatzat aurkezteaz gain, eredu politikoen eta zibilizazio-ereduen arteko konfrontaziotzat ere aurkeztu zuten. Txina lehiakide ekonomikotzat deskribatzeaz gain, mendebaldeko lidergoaren eta nazioarteko ordena liberalaren erronka sistemikotzat ere agertu zen gero eta gehiago. EBk arreata bereziz *erosi* zuen dotrina berria.

Aldi berean, lehiaren dimentsio militar eta geopolitiko gero eta handiagoa azaldu zen, eta hori Indo-Pazifikoko aliantzen indartzean zein Hego Txinako Itsasoaren eta Taiwanen inguruko tentsioen areagotzean ikus zitekeen. Trumpen administrazioak *nabigazio-askatasuneko* operazioak areagotu, eta eskualde-kideekiko loturak indartu zituen; halaber, Indo-Pazifikoa XXI. mendeko agertoki estrategiko nagusitzat zehazten hasi zen.

Washingtonen, horren guztiaren ondorioa Txinarekiko bi alderdiko adostasunaren zabalkuntza izan zen. Ñabardura eta estilo desberdinekin izan

* Bere azken liburua: *Marx&China. La sinización del marxismo*, Akal, 2025.

[...] Trumpen lehen agintaldia AEBetako sektore estrategikoetan lehendik zeuden joeren katalizatzaile eta bizkortzaile gisa aritu zen. Oinarrizko desberdintasuna izan zen Txinarekiko lehia bigarren mailako gai gisa edo eremu jakin batzuetara mugatutako gai gisa hautemateari utzi zitzaiola, eta XXI. mendean Ameriketako Estatu Batuen kanpo-politika eta segurtasun nazionaleko politika antolatzeako printzipio bihurtu zela.

arren, Txina erronka estrategiko nagusitzat hartzeak alternantzia politikoa gaingitu zuen, eta, azkenean, errepublikanoen eta demokraten arteko adostasun iraunkor bakanetako bat izan zen. Joe Bidenen ondorengo administrazioak ez zuen diagnostiko hori funtsean aldatu; haren elementu askotan sakondu zuen, batez ere teknologiaren eta aliantzen arloan.

Oro har, politika erabat berri bati hasiera eman baino gehiago, Trumpen lehen agintaldia AEBetako sektore estrategikoetan lehendik zeuden joeren katalizatzaile eta bizkortzaile gisa aritu zen. Oinarrizko desberdintasuna izan zen Txinarekiko lehia bigarren mailako gai gisa edo eremu jakin batzuetara mugatutako gai gisa hautemateari utzi zitzaiola, eta XXI. mendean Ameriketako Estatu Batuen kanpo-politika eta segurtasun nazionaleko politika antolatzeako printzipio bihurtu zela.

Bidenek gidoi berari jarraitu zion

Joe Bidenen administrazioak ez zuen Txinaren gaineko presioa txikitu, baizik eta, alderdi askotan, sofistikatu eta sistematizatu egin zuen. Donald Trumpen estilo unilateral eta transakzio- eta konfrontazio-estiloarekin alderatuta, Bidenek bere horretan eutsi zion diagnostiko estrategikoari –Txina, Ameriketako Estatu Batuen lehiakide sistemiko nagusia–, baina arkitektura egonkorragoa, koordinatuagoa eta multilateralagoa eman zion.

Jarraitutasuna agerikoa izan zen zenbait arlotan, hala nola kontrol teknologikoetan, erdieroale aurreratuei jarritako murrizketetan, Huaweiren gaineko presioan

edo mendekotasun estrategikoak murrizteko borondatean. Hala ere, Administrazio berriak desakoplamendu orokorraren logikatik (*decoupling*) formula selektiboagoetara (adibidez, *de-risking*) eramanez izan zuen enfasia; interdependentzia ekonomikoa erabat suntsitu gabe ahultasun kritikoak mugatzea bideratutako formulatar, hain zuzen ere. EBk beste dotrina hori ere *erosi* zuen.

Aldi berean, Bidenek lehiaren aliantza-dimentsioa indartu zuen. Txinaren gaineko presioa alde biko terminotan nagusiki planteatzeari utzi, eta Europako eta Asiako aliatuekin koordinatzeko esparruetara eramanez. QUAD indartzea, AUKUS sortzea edo Japonia, Hego Korea eta Europar Batasunarekin gero eta koordinazio teknologiko handiagoa izatea, besteak beste, bat zetozen ideia honekin: Txinarekiko lehiak koalizio iraunkorrak eta gaitasun partekatuak artikulatzea eskatzen zuen, hegemonia liberal globalari eusteko.

Lehiaren kontzeptu-lanketa handiagoa ere egin zen. Bidenen administrazioa, lehia konfrontazio komertzial gisa aurkezteaz gain, estandar teknologiko, industria-erresilientzia, hornidura-kate, gobernantza global eta berrikuntza-gaitasunarekin lotutako borroka estruktural gisa ere aurkezten saiatu zen. AEBetako industria-politika –dirulaguntzen eta berrindustrializazio teknologikoaren programetan ikus daitekeena–, horrela, Txinarekiko lehia estrategikoaren parte bereizezin gisa jotzera igaro zen.

Paradoxikoki, Trumpen diskurtsoak zuzeneko konfrontazioa eta antagonismo politikoa azpimarratzen zituen, baina Biden, aldiz, irmotasun estrategikoa egonkortze-mekanismoekin konbinatzen saiatu zen, gatazka irekita eramango zuen kontrol gabeko deriba saihesteko. Horregatik, alde biko harremanean, batez ere arlo militarrean eta diplomatikoan, *bazter-babesak* ezartzen tematu zen.

Azken finean, Trumpek Txinarekiko lehia AEBetako kanpo-politikaren ardatz esplizitu bihurtu zuen, eta Bidenek, berriz, hura instituzionalizatzen lagundu zuen, koherentzia burokratiko handiagoa, aliantza-dentsitatea eta sofistikazio politiko eta estrategikoa emanez.

Oro har, behin-behineko balantzearen arabera, Txinarekiko lehia ez da gertaera koiuntural bat, baizik eta nazioarteko gaur egungo politikaren esparru egituratzailea. Hala ere, Washingtonek egindako presioaren intentsitatea gorabehera, Ameriketako Estatu Batuek ez dute lortu Txinako igoeraren funtsezko dinamikak modu erabakigarrian aldatzea, ezta eustearen, baterako existentziaren eta lehiaren arteko oreka egonkor bat definitzea ere. Ameriketako Estatu Batuek eta Txinak gero eta joera handiagoa dute erlazioa epe luzeko lehia sistemikoaren terminotan interpretatzeko.

Berrazterketa bat bigarren agintaldian?

Bigarren agintaldian, ekuatorera iritsita, Txinarekiko lehiaren lehen balantzeari dagokionez, zenbait elementu izan behar dira kontuan, AEBetako estrategiaren jarraitutasunak nahiz kontraesanak eta mugak baloratzeko aukera ematen dutenak.

Zalantzarik gabe, Washingtonen, Txinaren aurkako adostasun estrategikoak bere horretan jarraitzen du. Arindu beharrean, Txina erronka sistemiko nagusizat hartzeko ikuspegia are gehiago sendotu da arlo politikoan, militarrean, teknologikoan eta ekonomikoan. Beijingekiko lehiak AEBetako politikaren adostasun estruktural bakanetako bat izaten jarraitu, eta zatiketa alderdikoak gainditzen ditu.

Norgehiagoka teknologikoa lehiaren gune nagusi gisa finkatu da. Erdieroale aurreratuak, adimen artifiziala, konputazio kuantikoa, telekomunikazioak eta mineral estrategikoen kontrola lehentasunezko esparru bihurtu dira. Borroka komertzial hutsa baino gehiago, etorkizuneko nagusitasun ekonomiko eta militarreko erabakigarritzat jotzen diren teknologien kontrolaren ingurukoa da konfrontazioa gero eta gehiago.

Hala ere, kontrolak, zigorrak eta murrizketak gogortu arren, bi ekonomien arteko interdependentziak sakona

izaten jarraitzen du. Hornidura-kate globalek, truke komertzialen magnitudeak eta kapitalismo globalaren egiturak berak zaildu egiten dute erabateko deslotura. Horren ondorioz, hasierako diskurtso maximalista doitu, eta arriskuak dibertsifikatzearekin eta murriztearekin lotutako formula pragmatikoagoak erabili behar izan dira. Trumpek Txinaren aurka arrakastarik gabe egindako muga-zergen gerrak kalte egin zien bertako ekonomiari eta biztanleei, eta Beijingek lur arraroak osatzen dituzten elementuen esportazioetan egindako kontrolek atzera egitera behartu zuten azkenean Trump.

Halaber, lehiaren dimentsio geopolitiko eta militarra etengabe hazten ari da, Indo-Pazifikoa, bereziki. Taiwanen inguruko tentsioek, eskualdeko aliantzak indartzeak eta eskualdean gaitasun militarrek areagotzeak garbi erakusten dute lehiak gero eta osagai estrategiko sentikorragoa duela, eta gora egiteko arrisku potentzialak daudela.

Txinak, estatubatuarren presioaren aurrean, nolabaiteko erresilientzia erakutsi du. Nahiz eta bertako ekonomiak dezelerazio-seinaleak erakutsi dituen eta zailtasun estrukturaleri aurre egin behar izan dien –higiezinaren krisia, zorpetzea, barneko kontsumoaren ahultasuna edo tentsio demografikoak–, ez da kolapso ekonomikorik izan, ezta gaitasun teknologiko eta militarren euste efektiborik ere. Aitzitik, Beijingek autosufizientzia teknologikoko eta kanpoko mendekotasunak murrizteko politikak bizkortu ditu. Gerra teknologikoan, presio handienak Txinak hornitzaile estatubatuarrak behin eta berriz gainditzea baino ez zuen eragin. Gerra komertzialean, Txinak asko dibertsifikatu zituen bere esportazioak, eta superabit komertzialeko markak ere hautsi zituen.

Gainera, lehia zabaltzen ari da esparru ideologikoan eta normatiboan. Borroka ez da botere materialera mugatzen, gobernantza-ereduak, estandar teknologikoak, nazioarteko instituzioak eta legitimitate politikoa ere barne hartzen baititu.

Oro har, behin-behineko balantzearen arabera, Txinarekiko lehia ez da gertaera koiuntural bat, baizik eta nazioarteko gaur egungo politikaren esparru egituratzailea. Hala ere, Washingtonek egindako presioaren intentsitatea gorabehera, Ameriketako Estatu Batuek ez dute lortu Txinako igoeraren funtsezko dinamikak modu erabakigarrian aldatzea, ezta eustearen, baterako existentziaren eta lehiaren

arteko oreka egonkor bat definitzea ere. Ameriketako Estatu Batuek eta Txinak gero eta joera handiagoa dute erlazioa epe luzeko lehia sistemikoaren terminotan interpretatzeko.

Inflexio-puntu bat izan al da Beijingo maiatzeko gailurra?

Ziurrenik azkarregi izango da hori baieztatzeko. Aldiz, badirudi egonkortze taktikorako saiakera bat islatzen duela lehia estruktural baten barruan, eta bi aldeetako bat ere ez dago hori konpontzeko moduan, ezta azken hariraino eramateko moduan ere, oso kostu handiak bere gain hartu gabe. Baina 2018an Ameriketako Estatu Batuen eta Txinaren arteko gerra komertziala hasi zenetik alde biko harremanetan izan den egokitzerik esanguratsuena markatu lezake.

Badirudi Washingtonen eta Beijingen itxuraz kontraesankorrak diren bi ideia barneratu dituztela aldi berean. Lehenengoa, bi potentzien arteko lehia estrategikoak izaera iraunkorra eta sistemikoa hartu duela. Bigarrena, kontrolik gabeko igoera ekonomiko, teknologiko edo militar batek efektu guztiz ezegonkortzaileak eragin ditzakeela bientzat eta nazioarteko sistema osoarentzat.

Testuinguru horretan, gailurra distentsio-etapa baten hasieratzat gutxiago hartu daiteke lehia kudeatzeko gutxieneko mekanismoak eraikitze ahalegintzat baino. Kontua ez litzateke hainbeste lehia lehengoratzea, baizik eta lehia hori atzera bueltarik gabeko konfrontazio-logika batean amaitzen ez uztea. Hori Taiwani aplikatzen zaio bereziki.

«Egonkortasun estrategiko konstruktibo» adierazpideak, hain zuzen ere, anibalentzia hori islatzen du. Alde batetik, onartu egiten du interes dibergenteek eta lehia biziak iraun egiten dutela eremu erabakigarrietan; adibidez, teknologia, merkataritza, eragin global, segurtasun-arkitektura edo lidergo normatiboko eremuetan. Bestetik, muga batzuk, komunikazio-kanalak eta lankidetzak selektiboko espazioak ezartzeko beharra ematen du aditzera, kontrolik gabeko igoera-dinamikak saihesteko.

Hala ere, egonkortasun hori eraikitze zailtasunak handiak dira.

Lehenik eta behin, Txinaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko lehiak ez dielako desadostasun koiunturalei bakarrik erantzuten, botere globalaren banaketaren eraldaketa sakonari baizik. Ameriketako Estatu Batuek Txinaren igoera beren nagusitasun estrategikoarekiko erronka nagusitzat hartzen dute, eta Txinak, berriz, AEBetako ekimen asko bere modernizazioa geldiarazteko eta bere nazioarteko proiektzioa mugatzeko ahalegintzat interpretatzen ditu.

Lehenik eta behin, Txinaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko lehiak ez dielako desadostasun koiunturalei bakarrik erantzuten, botere globalaren banaketaren eraldaketa sakonari baizik. Ameriketako Estatu Batuek Txinaren igoera beren nagusitasun estrategikoarekiko erronka nagusitzat hartzen dute, eta Txinak, berriz, AEBetako ekimen asko bere modernizazioa geldiarazteko eta bere nazioarteko proiektzioa mugatzeko ahalegintzat interpretatzen ditu.

Bigarrenik, elkarrenganako mesfidantza instituzionalizatu egin delako pixkanaka. Murritzeta teknologikoek, Taiwanen inguruko tentsioek, Indo-Pazifikokoaren militarizazioak, politikoki hurbilekoak diren herrialdeei egindako erasoek, erdieroaleak lortzeko borrokak edo adimen artifizialeko norgehiagokak zaurgarritasun estrategikoko elkarrenganako pertzepzioak eragiten dituzte.

Hirugarrenik, lehiak gero eta ideologia- eta legitimitate-dimentsio handiagoa duelako. Washingtonen eta Beijingen gero eta joera handiagoa dute lehia antolaketa politikoko ereduaren, gobernantza-gaitasunaren eta nazioarteko ordenaren ikuspegiaren arteko konfrontazio gisa aurkezteko.

Hala ere, badira nolabaiteko egonkortasunera bultzatzen duten faktoreak ere. Interdependentzia ekonomikoaren sakontasuna, haustura malkartsu batekin lotutako arrisku sistemikoak eta eremu globaletan –klima, finantzak, segurtasun nuklearra edo hornidura-kateak– lankidetzan aritzeko beharra elementu moderatzaileak dira.

Horregatik, epe ertainerako agertoki probableena, agian, ez da beste gerra hotz klasiko bat, ezta harremanen erabateko normalizazioa ere, baizik eta

konfrontazioaren, disuasioaren, negoziazioaren eta lankidetzaren mugatuaren arteko konbinazio aldakorra ezaugarri duen baterako existentzia lehiakorra.

Benetako zalantza da ea bi potentziak gai izango diren lehia kudeatzeko gutxieneko arauak ezartzeko, krisiren batek egungo oreka brastakoan aldatu aurretik. Azken batean, «egonkortasun estrategiko konstruktiboaren» bideragarritasuna lehia galtzearen mende gutxiago egongo da lehia horrek erabateko antagonismo-dinamika bat eragitea eragozteko bi aldeek duten gaitasunaren mende baino.

Iritsi al da G2 bat eratzeke unea?

Epe labur eta ertaineko harremana lehia estrukturalak eta baterako existentziaren beharrak batera markatuko dutela dirudi. Erabateko normalizazioaren ideiak gaur egun ez dirudi oso errealista, ezta erabateko desakoplamendu batek edo konfrontazio iraunkor ireki batek ere. Hala, Txinaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko harremana kudeatutako lehiaren tarteko eremu ezegonkor baina oraindik kontrolagarri batean mugitzen da.

Eremu horretan, pentsatzekoa da AEBen presioak bere horretan jarraituko duela estrategikotzat jotzen diren esparruetan, eta Txinak, berriz, autosufizientzia teknologikoko politikak bizkortzen eta euste-egoera luzeen aurrean erresistentziarako gaitasuna indartzen jarraituko duela.

Aldi berean, badirudi bi aldeek gero eta argiago dutela ezinbestekoak direla lankidetzako eta komunikazioko gutxieneko maila batzuk. Kanal militarrek berrituz irekitzeak, goi-mailako kontaktu diplomatikoek edo krisiak kudeatzeko mekanismoak bilatzeak adierazten dute bi aldeek borondatea dutela lehiak kontrolik gabeko konfrontazio-dinamikarik ez eragiteko. Baina egonkortzeko aukerak ahulak izaten jarraitzen dute.

Testuinguru horretan, aldi-aldi agertzen da balizko «G2» baten kontua; hau da, Ameriketako Estatu Batuek eta Txinak nazioarteko sistemaren zuzendaritza partekatu bat instituzionalizatzea. Hipotesia ez da berria. 2008ko finantza-krisiaren ondoren, sektore batzuek bi potentzien arteko halako kondominio estrategiko baten aukera planteatu zuten, zentralitate ekonomiko eta politikoaren elkarrekiko

Aldi berean, badirudi bi aldeek gero eta argiago dutela ezinbestekoak direla lankidetzako eta komunikazioko gutxieneko maila batzuk. Kanal militarrek berrituz irekitzeak, goi-mailako kontaktu diplomatikoek edo krisiak kudeatzeko mekanismoak bilatzeak adierazten dute bi aldeek borondatea dutela lehiak kontrolik gabeko konfrontazio-dinamikarik ez eragiteko. Baina egonkortzeko aukerak ahulak izaten jarraitzen dute.

onarpenean oinarrituta. Hala ere, gaur egun ez du ematen baldintzak oso egokiak direnik G2 bat benetan instituzionalizatzeko.

Lehenik eta behin, elkarrenganako mesfidantza estrategikoa duela hamarkada bat baino askoz ere handiagoa delako. Washingtonetzat, G2 bat efektiboki onartzeak bere hegemonia globalaren gainbehera legitimatuko luke, eta Beijingetzat, berriz, kogestioko edozein formulak, batez ere hierarkikoa bada, autonomiarako eta igotzeko bere marjina mugatzeko saiakerak ekar ditzake.

Bigarrenik, gaur egungo nazioarteko sistema alde biko direktorio baten logikak eskatzen duena baino zatikatuago dagoelako. Europar Batasunak, Indiak, Errusiak edo hainbat eskualde-potentziak nekez onartuko lukete bi polo eskusiboren inguruan esplizituki antolatutako nazioarteko arkitektura bat. Txinak nahiago du multipolaritateaz hitz egin.

Hirugarrenik, bi potentzien arteko desberdintasun normatibo eta ideologikoak nabarmenak direlako oraindik ere. Potentzia handien arteko beste adostasun-une historiko batzuetan ez bezala, Ameriketako Estatu Batuek eta Txinak ez dute nazioarteko ordenaren arau politiko eta ekonomikoei buruzko ikuspegi komun eta sendo bera.

Hala eta guztiz ere, G2 formal batek gertagaitza dirudien arren, pixkanaka halako «G2 funtzional» edo *de facto* G2 bat sortu liteke eremu global jakin batzuetan. Finantza-egonkortasunari, klima-aldaketari, erregulazio teknologikoari, segurtasun nuklearrari edo gobernantza komertzialari dagokienez, Washingtonen eta Beijingen artean nolabaiteko ulermena beharko litzateke irtenbide jasagarriren bat lortzeko.

Paradoxa nagusia da, hain zuzen ere, bi potentzien arteko lehia estrategikoak lankidetza zailtzen duela, baina, aldi berean, erronka globalen handitasunak gero eta beharrezkoago egiten duela koordinazio-moduren bat. Horregatik, etorkizunik onargarriena ez da G2 instituzionalizatu eta egonkor bat, baizik eta harreman anbibalente bat, non lehia estrukturala, lankidetza selektiboa eta nazioarteko kogestioko mekanismo partzialak egongo diren.

Azkenik

Badirudi Beijjنگeko gailurretik oreka ahul bat atera dela, baina, zenbat iraun dezake? Trumpek 2029an kargua utzitakoan, galduko al dituzte Txinaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko harremanek «transakzio-egonkortzaile» hori? Eta itzuliko al dira ideologiak bultzatutako lehia dinamiko batera? Inork ezin du ziurtasunez auresan nolakoa izango den mundua edo nolakoak izango diren Txinaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko harremanak Trumpen ondorengo aroan.

Baina garbi esan daiteke Txinaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko lehia nazioarteko sistema

Paradoxa nagusia da, hain zuzen ere, bi potentzien arteko lehia estrategikoak lankidetza zailtzen duela, baina, aldi berean, erronka globalen handitasunak gero eta beharrezkoago egiten duela koordinazio-moduren bat. Horregatik, etorkizunik onargarriena ez da G2 instituzionalizatu eta egonkor bat, baizik eta harreman anbibalente bat, non lehia estrukturala, lankidetza selektiboa eta nazioarteko kogestioko mekanismo partzialak egongo diren.

ekonomikoaren berregituraketa osatugabe eta desorekatu batean laguntzen ari dela, industria-birlokalizazioko prozesuak, ekoizpen-kateen erregionalizazioa eta partzialki bereizitako bloke teknologikoen sorrera bultzatuz. Eta zortzi urteko lehia estrategikoak frogatu duela Txina ez dela ahuldu, baizik eta erresilientzia handia erakutsi duela industriaren modernizazioan, garapen teknologikoan eta eragin globalean. ■



Irudia: Melbourneko (Australia) Fitzroy auzoan kokatutako grafiti bat, Jon Tysonen argazkiatua (Unsplash).

Daniel Diaz-Fuentes; Judith Clifton; Marcos Fernández-Gutiérrez; Ana Lara Gómez
Kantabriako Unibertsitatea

1. Sarrera

Egungo nazioarteko ordena ekonomiko eta politikoa tentsio geopolitiko eta geoekonomikoen hazkunde nabarmenak baldintzatzen du (Bhatt, 2026). Agertoki hori gatazka armatuen agerpenak, estatuen arteko liskarrek, eskala handiko desinformazio-dinamikek eta azelerazio teknologiko disruptiboak baldintzatzen dute. Testuinguru horretan, Donald Trump Estatu Batuetako lehendakartzara itzuli izanak hautsi egin du ingurumen-politika globala. Izan ere, haren agendak —erregulazioa eraistea, konpromiso klimatikoetatik de facto irtetea eta erregai fosilen sustapen intentsiboa— presio sistemikoa eragiten du multilateralismoan. Horrela, Estatu Batuetako Administrazioaren estrategia eredu antagonikoa da, Europako Itun Berdean islatutako Europar Batasunaren (EB) plan estrategikoarekin alderatuta.

Nahiz eta azken hamarkadetan herrialdeak adostasun baten bidean joan trantsizio klimatikoa inplementatzeko beharraren inguruan, Trumpen administrazio berriaren politika desarautzaile eta negazionistak ingurumen-gobernantza globala desartikulatzea du helburu. Hala ere, Europako Itun Berdea kolapsora eramane beharrean, jarrera horrek bere trantsizioa sendotzera behartzen du EB, ez bakarrik arrazoi ekologikoengatik, baizik eta industria-lehiakortasunaren eta energia-subiranotasunaren funtsezko sektore gisa.

Trumpen erretorikak —«engainu handia» edo «iruzur berdea» deritzon ideiarene inguruan artikulatua— nahita egin nahi die presio gobernuei beren helburu klimatikoak bertan behera utz ditzaten, erregai fosil merkeetan oinarritutako lehiakortasun faltsua lortu nahian. Diskurtso horrek zilegitasuna eman nahi dio eszeptizismo klimatikoari nazioarteko jokaleku politikoan, eta zenbait aktore birgaitzen ditu zeharka, hala nola Errusia eta Saudi Arabia. Europako barne-espektro politikoaren barruan ere, ikusten da jatorrizko helburu ekologikoak indarra galtzen, instrumentalizatzen (*greenwashing*) edo

isilbidez atzeratzen ari direla, egoeraren araberako lehentasunen eta epe laburreko larrialdien mesedetan.

Artikulu honek AEBko ingurumen-erregresioaren sektore horrek EBri zuzenean nola eragiten dion aztertzen du. Kontinentean atzera egitea eragin beharrean, Washingtonen erasoaldia Europako Itun Berdearen erresilientzia probatzen duen katalizatzaile geopolitiko da. Horizonte Europa *GreenPaths* (2026) proiektuaren aurkikuntzetatik abiatuta, aztertzen dugu EBk nola blindatu nahi duen bere trantsizio berdea AEBren ingurumen-*dumpingaren* aurrean, deskarbonizazioa autonomia industrialerako eta arauen egonkortasunerako estrategia bihurtuz. Hala ere, epe luzera bideragarria izan dadin, babes-mekanismo instituzionalak behar dira. Beraz, gizarte zibilak eta eragile instituzionalek estatuetako gobernuei presio iraunkorra egiteko beharra planteatzen da, helburu lotesleak benetan betetzen direla ziurtatzeko.

2. Europako Itun Berdea, ingurumen-*dumpingaren* aurrean subiranotasuna eta bidezko trantsizioa lortzeko estrategia gisa

Europako Itun Berdea da EBren eraldaketa ekonomiko eta estrukturalerako urte anitzeko esparrua, eta kontinentearen neutraltasun klimatikoa lortzea du azken helburu 2050erako (Europako Batzordea [EB], 2019 eta 2025a). Hala ere, egungo testuinguru geopolitikoan, Europako Itun Berdeak hazkunderaren barne-estrategia soila izateari utzi dio; gaur egun, Europak duen defentsa-erantzun nagusia da AEBko Trumpen administrazioaren ingurumen-*dumpingaren* eta subsidio fosilen aurrean.

Ingurumen-agenda sektorial tradizionalak ez bezala, Europako Itun Berdea zeharkako babes- eta lehiakortasun-ezkutua da orain, eta mendekotasun energetikoaren aurrean ikuspegi justu eta subiranoa bermatzeko dago diseinatuta. Washingtonek

ingurumen-estandarrak kentzearen ondorioz, EBk zenbait mekanismo bizkortu eta blindatu behar ditu, hala nola Karbonoaren Mugak Doitzeko Mekanismoa, karbono-azterna handia duten produktu estatubatuarrek ez dezaten Europako merkatua modu desleialean bete. Helburua ez da soilik erronka ekologikoak modernizatzea eta horiek hazkunde ekonomikotik bereiztea, baizik eta erresilientzia berdea lehiarako abantaila sistemiko bihurtzea. Draghik (2024) adierazten duen bezala, EBren estrategiak trantsizio berdea lotu behar du, industria-lehiakortasunerako aukera kritikoa den aldetik.

Hala ere, Europa Berdea ezartzea konplexutasun handiko erronka multidimentsionala da (EB, 2021: 55. helburua / *Fit for 55*). Europako Itun Berdearen arrakasta ez dago soilik ingurumen-zuzentzauei mende, baizik eta hura sistema sozioekonomiko bideragarri gisa finkatzearen mende, funtsezko bi zutabe edo printzipiotan oinarrituta:

- Politika publikoen koherentzia, hainbat sektore ekonomiko, gobernantza-maila eta lurralderen bidez.
- Birmoldaketa-prozesuen ekitate soziala, «ez lekurik ez pertsonarik atzean ez uzteko» konpromiso instituzionalaren pean artikulatua (EB, 2019). Printzipio horren arabera, trantsizio ekologikoa trantsizio justua izateko moduan antolatu behar da nahitaez (EB, 2025b; NBE, 2024 eta 2025).

Lehen erronkari dagokionez, zenbait tentsio nabari dira EBren esparru makroekonomikoen eta haren jasangarritasun ekologikoko helburuen arteko egiturazko funsgabetasunen ondorioz. Indarrean dauden eredu ekonomikoen arabera, arau-pizgarriek lehentasuna ematen diote hazkunde ekonomikoari eta lehiakortasunari, justizia sozialaren eta ingurumen-biziberritzearen adierazle gaitik. Desfase horren ondorioz, ezkutuko arriskua dago *greenwashing* egiteko edo isurketak murrizteko helburuak malgutzeko, eta, horri esker, karbonoan intentsiboak diren industria-sektoreek azaleko birkonfigurazioak egin ditzakete, egiturazko eraldaketak egin beharrean. Horren ondorioz, Europako Itun Berdeak blindaje instituzionala eskatzen du, botere-asimetria horiek arintzeko eta ingurumen-legeria kanpoko merkataritza-presioen edo epe laburreko ziklo politikoen mende ez jartzeko.

Indarrean dauden eredu ekonomikoen arabera, arau-pizgarriek lehentasuna ematen diote hazkunde ekonomikoari eta lehiakortasunari, justizia sozialaren eta ingurumen-biziberritzearen adierazle gaitik. Desfase horren ondorioz, ezkutuko arriskua dago *greenwashing* egiteko edo isurketak murrizteko helburuak malgutzeko, eta, horri esker, karbonoan intentsiboak diren industria-sektoreek azaleko birkonfigurazioak egin ditzakete, egiturazko eraldaketak egin beharrean.

Bigarren erronkari dagokionez, birmoldaketa industrialak asimetria sozioekonomiko gogorrak ezartzen ditu eskualde espezifiko batzuetan, bereziki historikoki ikatz-meatzaritzaren edo industria astunaren mende egon diren lurraldeetan. Arazo horri aurre egiteko, EBren finantza-arkitekturak Bidezko Trantsiziorako Mekanismoa (JTM) (EB, 2025a) ezarri du. Tresna horren funtzio teorikoa da laguntza finantzario, tekniko eta sozial fokalizatua ematea, pobrezia energetikoa arintzeko, lan-birmoldaketarako programak finantzatzeko eta egiturazko langabeziak etxe eta sektore zaurgarrienetan duen eragina arintzeko.

Hala ere, *GreenPaths* (2026a) proiektuaren emaitza enpirikoek, azterlan sektorialetan oinarrituta (sektore estrategikoak hartzen dituzte, hala nola meatzaritza, nekazaritza politika bateratua, industria-politika berdea, finantza jasangarriak, etxebizitza eta pobrezia energetikoa, besteak beste), agerian uzten dute egungo politika klimatikoaren kostuak eta onurak —orain arte— modu asimetrikoan banatzen direla.

Ikerketak agerian uzten ditu eskualde barruko haustura gogorrak, batez ere landa-eremuetan eta despokatze-dinamiek eragindako eskualdeetan. Datuek erakusten dute baliabide erlatibo gutxien dituzten komunitateek neurri kanpo jasaten dituztela deskarbonizazioari lotutako egiturazko talkak. Erregai fosilak bertan behera uzteak, nekazaritzako elikagaien balio-kateak erreformatzeak eta industria-berregituratzeak arriskua dute gizarteak polarizatzeko, bai makro eremuan (estatu kideen artean), bai mikro eremuan (eskualdeen barruan). Trantsizio berde eraginkorrerako politikak, beraz, eskualdeetako lan-merkatuak indartu behar ditu, gizarte- eta

ingurumen-desberdintasunak zuzendu behar ditu eta errenta txikienean trantsizio energetikoaren kostuak jasan ditzaten saihestu behar du.

3. Trantsizio Berde eta Bidezkoaren dimentsio teoriko eta pragmatikoak

Honela definitzen du operatiboki EBk «bidezko trantsizioa»: inor edo lurralde bat bera ere atzean ez uzteko ekintza (EB, 2019; NBE, 2025). Kontzeptu horrek deskarbonizazio-helburuen eta justizia sozialaren printzipioen arteko konbergentzia zehatza eskatzen du. Literatura akademikoak eta ebidentzia empirikoak bi dimentsiotan oinarritzen dute ikuspegi hori: giza eskubideetan oinarritutako oinarri etikoa eta prozesu politikoaren beraren egonkortasunera bideratutako behar pragmatikoa.

Araudiaren ikuspegitik, justizia-agindua bat dator Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarekin, eta Nazio Batuen Garapen Jasangarriko 2030 Agendan sartzen da. Bidezko trantsizioaren ikuspegiak nazio-mailako agregatu makroekonomikoetatik egindako azterketa ordezkatzeko du —pobrezia larriko tokiko poltsak ezkutatzeko dituzte—, eta lurraldeko behar espezifikoetan oinarritutako metodologiaren alde egiten du. Esparru kontzeptual hori elkarri lotutako lau dimentsiotan banatzen da:

- Banatze-justizia: finantza kostuak eta deskarbonizazioaren onura ekologikoak eragile ekonomiko guztien artean ekitatez esleitzeari buruzkoa, merkatu-eraginkortasunean baino oinarritzen ez diren irizpideak saihestuz.
- Prozedura-justizia: gobernantza-prozesu inklusibo, parte-hartzaile eta gardenen eskakizunari buruzkoa, erabakiak hartzeko eremuetan zuzenean eragindako komunitateen ordezkagarritasuna bermatuko duena.
- Aintzatespen-justizia: populazio zaurgarrien identitateak eta interesak aintzat hartzea bideratua, atzean geratu diren lurraldeak ez daitezen «sakrifizio berdeko eremu» bihurtu.
- Justizia erreparatiboa: ingurumen-pasiboen eta pasibo historikoen erreparazioan eta komunitate jakin batzuek alde aurreko erauzketa-ereduen ondorioz metatutako kalte ekonomikoaren erreparazioan zentratua.

Justiziaren dimentsio horiekiko konpromiso espliziturik ez egoteak areagotu egiten ditu lehendik

[...] landa-lurraldeek edo ekonomia fosilen mendeko lurraldeek giza kapital espezializatuaren eskasia kronikoa dute, eta transakzio-kostu handiei egin behar izaten diete aurre finantzaketa-lerroak jasotzeko. Ondorioz, trantsizioak kapitala modu proaktiboan esleitzeko mekanismoak izan behar ditu, egiturazko asimetria hori zuzentzeko eta eredu ekonomiko berrian ez daitezen egon eskualde irabazleak eta galtzaileak [...]

zeuden desberdintasun espazialak; izan ere, klima-arriskuek eta trantsizioaren inpaktuek lurralde-espezifiktasun handia dute. Hiri-eremu handiek erantzukizun historiko esanguratsua dute krisi klimatikoan —berotegi-efektuko gasen isuri globalen % 70 inguru eragiten dute—, baina hirigune horiek dentsitate instituzionala, berrikuntza-azpiegitura eta gaitasun teknikoa dituzte, eta, horri esker, eskariak bideratutako finantzaketa klimatikoaren fluxuak eraginkortasunez jasotzen dituzte.

Aitzitik, landa-lurraldeek edo ekonomia fosilen mendeko lurraldeek giza kapital espezializatuaren eskasia kronikoa dute, eta transakzio-kostu handiei egin behar izaten diete aurre finantzaketa-lerroak jasotzeko. Ondorioz, trantsizioak kapitala modu proaktiboan esleitzeko mekanismoak izan behar ditu, egiturazko asimetria hori zuzentzeko eta eredu ekonomiko berrian ez daitezen egon eskualde irabazleak eta galtzaileak (NBIP, 2018; NZA, 2024; OCDE, 2025).

Betebehar etikoez harago, bidezko trantsizioaren dimentsio pragmatikoa ereduaren beraren jasangarritasunari gerta dakiokkeen baldintza bat da: adostasun soziala lortzea. Tokiko komunitateek ikusten badute ingurumen-araudiaren kostu ekonomikoak ekoizpen-sare periferikoari dagozkiola, eta itzulkin finantzarioak, berriz, hirigune globaletan kontzentratzen direla, erresistentzia kolektiboko fenomeno bat sortzen da, «atsekabe berdea» izenekoa (NZA, 2024; OCDE, 2025). Gizartea lerrokatze horietatik aldentzea mehatxu kritikoa da epe luzerako jasangarritasun politikentzat, diskurtso populistei eta eskuin muturreko mugimenduei mobilizatzeko bektorea ematen baitie; izan ere, horiek lurraldez lurraldeko bidegabekeria ekonomikoa

instrumentalizatzen dute, negazionismo klimatikoko jarrerak sendotzeko.

4. Europako Itun Berdearen finantza-arkitektura eta 2021-2023 aldiko inbertsioaren portaera

Europako Itun Berdearen finantzaketa-egiturak kapital publiko eta pribatuen mobilizazio masiboa eskatzen du, Europar Batasunaren aurrekontuaren eta maila anitzeko gobernantzaren bidez kudeatutako finantza-tresna espezifikoaren bidez artikulatua. Ekosistema horretan, Europako Batzordeak erregulatzaile estrategikoaren eta lege-ikuskatzailearen rola betetzen du, eta inbertsio-arriskuak arintzera bideratutako aurrekontu-berme publikoak ematen ditu (*de-risking*).

Europako Inbertsio Bankuak (EIB) dihardu Europa Jasangarrirako Inbertsio Plana (EJIP) gauzatzeko erakunde zentral gisa. 2019an Batasuneko «Klima Banku» gisa birkokatu ondoren, EIBk bere zorroa eta proiektuak ebaluatzeko metodologiak Parisko Akordioaren helburuekin lerrokatu ditu. Finantza-esparru horretako gobernantza kapital pribatuan eta hirugarren sektorean erakarpen-efektua (*crowding-in*) sortzera bideratuta dago. Tokiko edo eskualdeko eskuhartzeetarako (40 milioi eurotik beherako atalaseak dituztenak), EIBk funtsen banaketa deszentralizatzen du, garapenerako banku nazionalen eta merkataritzako finantza-bitartekarien bidez.

Estrategia hori, batez ere, Europako Itun Berdearen Inbertsio Planaren edo EJIPen bidez gauzatzen da (EB, 2020). Plan horren helburua da 2030era arte gutxienez bilioi bat euro mobilizatzea, eta bere egituran JTM txertatzea.

[...] *GreenPaths* proiektuak 2021-2023 hasierako aldirako egindako analisi enpirikoek paradoxa instituzionala erakusten dute: eskarian oinarritutako diseinu horrek sistematikoki laguntzen die gaitasun tekniko eta antolaketa gaitasun handia duten metropoli-eskualdeei, atzean geratu diren lurraldeen kalteta.

Kapitalen nazioarteko merkatuetan baliabideak kostu-baldintza hoberenetan erakartzeko, 27 estatu kideek babestutako kreditu-kalifikazio subiranoan (AAA) oinarritzen da EIB. Bildutako kapitalaren esleipena hiru modalitate nagusiren bidez gauzatzen da:

- Inbertsio-maileguak: eskualdekatutako bolumenaren % 83 dira, eta izaera estrategikoko azpiegitura-proiektu handietara bideratutako zuzeneko finantzaketa dira.
- Esparru-maileguak: bolumenaren % 13,3 dira, eta kreditu-kontratu agregatuak dira; udal- edo eskualde-mailan eskala txikiagoko hainbat azpi-proiektu bateratzen dituzte.
- Kuasi-kapitaleko bermeak eta tresnak: merkataritza-kreditua malgutzera eta enpresa txiki eta ertainei (ETE) likidezia ematera bideratutako erraztasunak.

Alderdi kritikoa da zehaztea EIBren finantza-baliabideen banaketa soilik eskari-logikaren arabera arautzen dela (Clifton *et al.*, 2018 eta 2025; EIB, 2026). EIBk ez ditu a priori lurralde-esleipenak egiten; aitzitik, teknikoki ebaluatzen ditu sustatzaile publiko edo pribatuek aurkeztutako eskaerak, ingurumen-jasangarritasunaren, bideragarritasun ekonomikoaren eta gobernantza sozialaren irizpideetan oinarrituta. Hala ere, *GreenPaths* proiektuak 2021-2023 hasierako aldirako egindako analisi enpirikoek paradoxa instituzionala erakusten dute: eskarian oinarritutako diseinu horrek sistematikoki laguntzen die gaitasun tekniko eta antolaketa gaitasun handia duten metropoli-eskualdeei, atzean geratu diren lurraldeen kaltetan.

Bidegabekeria distributibo horrek kohesioa hausten du, eta «Atsekabe Berdea» aktibatzen, AEBren ispiluak bultzatuta. Trumpen erretorika —industria eta meatzaritza tradizionala berpiztera bideratutako energia-desarautzean oinarritua— hitz politikak dira tokiko populismoarentzat. Europako funtsek hirigune handietan kontzentratzen jarraitzen badute, periferia zaugarriek Europako Itun Berdearen aurkako diskurtsoa hartuko dute, eta inbertsio-arrakala ahaztutako eskualdeen «trumpizazioaren» edo «axola ez duten lekuen mendekuaren» haztegi bihurtuko da (Rodríguez-Pose, 2018).

[...] AEBko merkatu desarautuaren lehia-oldarrari aurre egiteko, EBk ezin ditu atzean utzi atzean geratu diren eskualdeak. Eskarian hertsiki oinarritutako kapitalaren esleipenak hiriko *first-moverrei* bakarrik mesede egiten jarraitzen badie, barneko adostasun soziala hautsi egingo da, atzera bueltarik gabe. Lurralde-kohesiorik gabe, Europak ez du kanpo-presio geopolitikoari eusteko beharrezkoa den erresilientzia politikorik izango.

5. Inbertsio berdearen banaketaren ekitatea ebaluatzea

Europako finantza-arkitektura berdearen ebaluazioa ezin da jokaleku geopolitiko global konplexutik bereizi. Estatu Batuetako aldakortasun politikoak eta Trumpen narratibaren itzulerak arauen inguruko ziurgabetasun sakona eragiten duten bitartean mundu-mailan, Europar Batasunak kontrako poloan kokatu nahi du: arauen egonkortasunaren babesleku.

Hala ere, EJI Pen pean 2021-2023 hirurtekoan egindako EIBren finantzaketa klimatikoaren eskualde-banaketaren azterketa enpirikoak behartu egiten du estrategia horri kritika estruktural bat gehitzera: AEBko merkatu desarautuaren lehia-oldarrari aurre egiteko, EBk ezin ditu atzean utzi atzean geratu diren eskualdeak. Eskarian hertsiki oinarritutako kapitalaren esleipenak hiriko *first-moverrei* bakarrik mesede egiten jarraitzen badie, barneko adostasun soziala hautsi egingo da, atzera bueltarik gabe. Lurralde-kohesiorik gabe, Europak ez du kanpo-presio geopolitikoari eusteko beharrezkoa den erresilientzia politikorik izango.

Esan behar da, finantza-bitartekarien bidez bideratutako inbertsio-fluxuei datxezkien opakutasuna dela eta, kapital-banaketaren mapak mugak dituela datuei dagokienez. Hala ere, identifikatutako joerek arrakala distributibo nabarmena islatzen dute: metropoli-nodo handiek inbertsio berdearen zatirik handiena hartzen dute, eta lurralde zaugarriek edo ekonomia fosilen mendekoek, berriz, maila nabarmen txikiagoan jasotzen dituzte, eta hori egiturazko hiru aldagaitan islatzen da:

- Biztanleko hiri-kontzentrazioaren alborapena: Azterketak erakusten du hiri-eremu funtzionalean integratutako biztanleriaren bolumena dela funtsen esleipenean nagusi den aldagai prediktiboa (EIB, 2025b). Metropoli-eremuetako kapital-erakarpenearen batezbestekoa 154 €-koa izan zen biztanleko, eta gutxien urbanizatutako eremuetan, berriz, 82,70 €-koa. Inbertsioa nodo hiriburuetako garraio- eta azpiegitura-makroproiektuetan kontzentratu zen (adibidez, Parisko Metroaren Sarea, Koloniako S-Bahn eta Madrilgo trenbide-sareak). 1,5 milioi biztanletik gorako metropoliak dituzten EBko eskualdeetan –besteak beste trantsizio berdearekiko zaugarritasuna, kalitate instituzionala eta per capita BPGa kontrolatu ondoren–, biztanleko EIBren finantzaketa klimatikoaren bolumena % 221,5 handiagoa izan zen, hiri-dentsitate txikiaren eskualdeekin alderatuta.
- Zaugarritasun Indizearekiko alderantzizko korrelazioa: Kapital-fluxuak Rodríguez-Posek eta Bartaluccik (2024) egindako Trantsizio Berdearen Zaugarritasun Indizearekin (GTVI) kontrastatzean, ikusten da deskarbonizazioaren ondorioz talka ekonomiko negatiboak izateko arrisku handiena duten eskualdeek ez dutela jasotzen finantza-laguntza proportzionalik. Datuek –% 20,5eko korrelazio negatiboa erakusten dute: lurraldeen zaugarritasun-mailen igoera estatistikoki lotzen da EIBren inbertsioak gutxiago jasotzearekin. Izan ere, EBren barruan zaugarritasun handienekotzat katalogatutako 55 eskualdeetatik 34k (gehienak Ekialdeko Europan daude) funtsak biltzeko maila minimoak edo nuluak izan zituzten.
- Administrazio-gaitasunaren paradoxa instituzionala: Historikoki isurietan intentsiboak izan diren ekoizpen-ereduen bidez beren posizio nagusia sendotu zuten metropolietako ekonomiek, gaur egun, nagusitasuna dute arlo teknikoan, antolakuntzari dagokionean, bai eta aurrekontuei dagokienean ere, EIBek ezarritako auditoria-estandar konplexuen arabera (EIB, 2025a) hautagarriak diren proiektuak formulatzeko. Kreditua eskuratzea erreaktiboa denez eta eskaerak aurkeztearen mende dagoenez, sistemak abantaila bat sortzen du *first-moverrentzat*. Aitzitik, landa-eremuetako edo «garapenearen tranpa» egoeraren dauden eskualdeetako toki-administrazioek oztopo burokratikoak eta giza kapital espezializatuaren eskasiari egin behar diete aurre, eta horrek kapitala esleitzeko zirkuituetatik kanpo uzten ditu.

Hasierako emaitzek —EJIPen hamarkadaren lehen urteei dagozkienak— adierazten dutenez, egungo finantza-ereduak, eskariaren xurgatze-gaitasuna eta eraginkortasuna lehenesten dituenez lurraldearen behar objektiboen gainetik, eskualdeen arteko desadostasunak gertatzeko arriskua dakar berekin, eta horrek kontra egiten die Europar Batasunaren beraren kohesiorako eta bidezko trantsiziorako sorrerako helburuei.

6. Ondorioak eta proposamen estrategikoak

Trumpen politikak klimaren inguruko adostasun multilateralak zatikatzera eta nazioarteko akordioak urratzera jo du, eta, trukean, desarautze-eredu kaotikoa eskaini du. Polarizazio globaleko erronka horren aurrean, Europako Itun Berdeak eta EJIPek erresilientzia instituzional nabarmena erakusten dute. Hornidura-kateen desordenaren eta ezegonkortasunaren aurrean, Europako Itun Berdeak ingurumen-politika hutsa izateari utzi dio, eta EBren estrategia geopolitikoarean sektore bihurtu da, hiru zutabe nagusitan antolatuta:

- **Autonomia estrategikoa:** Energia berriztagarrietan inbertitzeak atzerriko erregai fosilekiko mendekotasuna murrizten du, eta energia-subiranotasuna ziurtatzen du, aurreikus daitekeen barne-sare baten bidez.
 - **Industria-estrategia:** EJIPek kapital publiko-pribatua injektatzen du tokiko hornidura-kateetan, eta, hala, funtsezko sektoreak eta enplegua blindatzen ditu.
 - **Arauen egonkortasuna:** Iragar daitekeen Taxonomia Berde zorrotz baten bidez, EBk epe luzerako ziurtasuna eskaintzen du, bere burua Etxe Zuriaren aldakortasunaren aurkako polo jarritz, eta gorabehera politikoetatik babestutako zorroak bilatzen dituzten inbertitzaileak erakartzen ditu.
- Europako Itun Berdearen eta EJIPen bidez, EBk trantsizio ekologikoa industriaren indar bihurtzen du, aldakortasun globalaren aurrean. Gainera, esparru horiek legez lotesleak direnez, estatu kideek sistematikoki bateratu behar dituzte beren politika ekonomikoak eta planetaren muga biofisikoak.

Hala ere, *GreenPaths* proiektuaren aurkikuntzek aukera ematen dute erresilientzia horren iraunkortasunak premiazko birbideratze estrategikoa eskatzen duela ondorioztatzeko. EBk Trumpen

EBk Trumpen Administrazioak ingurumen globalean duen eragin negatiboa arintzeko modurik onena da trantsizio berdea bidezkoa eta lehiakorra izan daitekeela erakustea. Europak *GreenPathsek* detektatutako lurralde-disfuntzioak zuzentzea lortzen badu, bere eredu soziala blindatuko du Washingtondik inportatutako populismo klimatikoaren aurrean. Munduko testuinguru desordenatuan eredu berdea defendatzeko, beharrezkoa da isuriak arintzeko helburu agregatuak gainditzea eta hiru gobernantza-ardatzetan oinarritutako egiturazko erreformak ezartzea.

Administrazioak ingurumen globalean duen eragin negatiboa arintzeko modurik onena da trantsizio berdea bidezkoa eta lehiakorra izan daitekeela erakustea. Europak *GreenPathsek* detektatutako lurralde-disfuntzioak zuzentzea lortzen badu, bere eredu soziala blindatuko du Washingtondik inportatutako populismo klimatikoaren aurrean. Munduko testuinguru desordenatuan eredu berdea defendatzeko, beharrezkoa da isuriak arintzeko helburu agregatuak gainditzea eta hiru gobernantza-ardatzetan oinarritutako egiturazko erreformak ezartzea:

- **Lokalizatutako egokitzapenaren instituzionalizazioa:** Beharrezkoa da arintze agendak tokiko erresilientzia klimatikoaren finantzaketarekin orekatzea. EIB 2026-2030en Klima Bankuaren Bide Orriak (EIB Group, 2025) asimetria horiei helitzen die, inbertsio jasangarrian bilioi bat euroko mobilizazioa gainditzeko konpromisoa hartuta, eta urteko eragiketen % 50 baino gehiago ingurumen-helburuetarako esleituta. Horren barruan sartzen da 30.000 milioi euroko helburu espezifiko bat sortzea, soilik egokitzapen politiketara bideratuta —horrek esan nahi du 2021-2025 aldiko bolumenak bikoizten direla—, ur-baliabideak babesteko, nekazaritzako elikagaien segurtasunerako eta komunitate zaurgarriari laguntzeko (EB, 2025b).
- **Administrazioa sinplifikatzea:** Europako Itun Berdearen dentsitate burokratikoa oztopoa izan

da gaitasun instituzional txikiena duten eskualdeentzat. EBko erakundeek disfuntzio hori aitortu dute, eta 2026-2030erako programazio estrategikoan funtsak eskatzeko, emateko eta ikuskatzeko prozedurak erabat sinplifikatzeko agindua txertatu dute. Estatuko eta eskualdeko administrazioei dagokie arautze-kargen murrizketa hori operatibo egitea, kapital berdea lurralde-beharren irizpideen arabera banatuko dela ziurtatzeko (EB, 2025c; EIB, 2025c).

- Plangintza ekonomiko eta sozialaren konbergentzia: Gobernantza-ebaluazioek adierazten dute EBko erakundeek planifikazio-gaitasuna nabarmen handiagoa izan dela dimentsio ekonomikoan eta industria lehiakortasunean, babes sozialen diseinuarekin alderatuta (Draghi, 2024). Erresistentzia politikoko dinamikak indargabetzeko, lehentasunezkoa da bi aldagaiak orekatzea. Europako Itun Berdearen babesa ez da oinarritu behar merkataritza-helburu abstraktu berriak formulatzean, baizik eta hiri-eskala txikiagoko lurraldeen gaitasun instituzionalak indartzean, eta ziurtatuz deskarbonizazioak tokiko garapen eta dibertsifikazio ekonomikoaren bektore gisa jardungo duela. Kanpo-efektu sozialak plangintza ekonomikoaren muinean txertatuz baino ez da izango posible herritarren atsekabea arintzea eta Europar Batasunaren lurralde-kohesioa zaintzea. ■

Erreferentziak

Bhatt, G. (2026). «The Geoeconomic Calculus». *Finance & Development*.

- Clifton, J., Díaz-Fuentes, D., Fernández-Gutiérrez, M. eta Gómez, A. L. (2026). «How “just” is the “just transition”? A regional analysis of climate finance in the European Union». *Cambridge Journal of Regions, Economy and Society*, <https://doi.org/10.1093/cjres/rsag016>
- Clifton, J., Díaz-Fuentes, D. eta Gómez, A. L. (2018). «The European Investment Bank: Development, Integration, Investment?» *JCMS: Journal of Common Market Studies*, 56: 733– 750. <https://doi.org/10.1111/jcms.12614>
- Clifton, J., Díaz-Fuentes, D., Gómez Peña, A. L. eta Howarth, D. (2025). «Lending Overlap in Europe's Financial Architecture: A Comparative Analysis». *Journal of Comparative Policy Analysis: Research and Practice*, 27, 62-80. <https://doi.org/10.1080/13876988.2024.2380400>
- CPI (Climate Policy Initiative) (2024). *The state of cities climate finance 2024*. <https://www.climatepolicyinitiative.org/publication/2024-state-of-cities-climate-finance/>
- Draghi, M. (2024). *The Future of European Competitiveness-A Competitiveness Strategy for Europe*. https://commission.europa.eu/document/97e481fd-2dc3-412d-be4c-f152a8232961_en
- EC (European Commission) (2019). *European Green Deal: Striving to be the first climate-neutral continent*, https://commission.europa.eu/strategy-and-policy/priorities-2019-2024/european-green-deal_en
- EC. (2020). «Communication from the Commission to the European Parliament, the Council, the European Economic and Social Committee and the Committee of the Regions». *Sustainable Europe*

- Investment Plan. European Green Deal Investment Plan.* <https://eur-lex.europa.eu/legal-content/En/TXT/HTML/?uri=CELEX:52020DC0021>
- EC (2025a). *European Green Deal: Striving to be the first climate-neutral continent.* https://commission.europa.eu/strategy-and-policy/priorities-2019-2024/european-green-deal_en (official EGD website).
- EC (2025b). *The Just Transition Mechanism: making sure no one is left behind.* https://commission.europa.eu/strategy-and-policy/priorities-2019-2024/european-green-deal/finance-and-green-deal/just-transition-mechanism_en
- EIB (2025c). *The state of local infrastructure investment in Europe – EIB Municipalities Survey 2024–2025.* EIB. Luxembourg. <https://www.eib.org/en/publications/20250028-eib-municipalities-survey-2024-2025>
- EIB (2026). *Financed projects.* Luxembourg: Financed projects
- EIB Group (2025). *Climate Bank Roadmap Phase 2 2026-2030.* <https://www.eib.org/en/publications/20250240-eib-group-climate-bank-roadmap-phase-2-2026-2030> DOI: 10.2867/8398584
- GreenPaths European Knowledge Hub on Just Green Transition Pathways (2026a). *Case Studies*, <https://greenpaths.info/greenpaths-case-studies/>
- GreenPaths European Knowledge Hub on Just Green Transition Pathways (2026b). *Consortium*, <https://greenpaths.info/consortium/>
- OECD (2025). «Mobilising sustainable finance for regions and cities». *OECD Regional Development Papers* https://www.oecd.org/content/dam/oecd/en/publications/reports/2025/04/mobilising-sustainable-finance-for-regions-and-cities_419a30c4/2af8dadb-en.pdf
- Rodríguez-Pose, A. (2018). «The revenge of the places that don't matter (and what to do about it)», *Cambridge Journal of Regions, Economy and Society*, 11, 1, 189–209, <https://doi.org/10.1093/cjres/rsx024>
- Rodríguez-Pose, A. et al. Bartalucci, F. (2024). «The green transition and its potential territorial discontents», *Cambridge Journal of Regions, Economy and Society*, 17, 2, 339–358, <https://doi.org/10.1093/cjres/rsad039>
- UN (United Nations) (2024). *Committee for development policy. Policy note. A globally just transition.* New York: <https://digitallibrary.un.org/record/4049701?v=pdf>
- UN (United Nations) (2025). *2030 agenda for sustainable development: «leaving no one behind»:* <https://www.un.org/en/desa/leaving-no-one-behind>
- UNEP (United Nations Environment Programme) (2018). *Green Financing:* <https://www.unep.org/regions/asia-and-pacific/regional-initiatives/supporting-resource-efficiency/green-financing>

Nahia Sanzo Ruiz de Azua

GEUSK Nazioarteko Politikaren Euskal Institutua / Instituto Vasco de Política Internacional

Geopolitikari dagokionez, Donald Trumpen agintaldiaren lehen urteak nazioarteko inplikazio politiko eta ekonomikoak dituen birkonfigurazioa ekarri du, eta eragile guztiek horretara egokitu behar izan dute. Kanpainan aurreratu zen bezala, Trumpen administrazioaren nazioarteko jarduerak Biden administrazioaren dinamika hautsi zuen Ukrainako gerrari dagokionez. «Zuek bezala, Ukraina burujabe eta oparoa nahi dugu, baina, hasteko, onartu behar dugu ez dela oso helburu errealista Ukrainak 2014 baino lehen zituen mugetara itzultzea. Ametsetako helburu hori lortzeak gerra luzatzea eta sufrimendu handiagoa eragitea baino ez du ekarriko», iragarri zien Pete Hegseth Defentsa idazkariak NATOk kideei 2025eko otsailean.

«AEBkez du uste Ukraina NATOn sartzea negoziazio-akordio baten emaitza errealista denik»², gaineratu zuen Hegsethek. Pentagonoko buruak, halaber, Ukrainako gerrari buruzko erabaki horiek zer logika geopolitikotan kokatzen ziren iragarri zuen; izan ere, Trump hautagaiak «ergeltzat» jo zuen gerra hori, eta behin eta berriz egotzi dio bere aurrekoari haren errua.³ Geroago, 2025eko abenduan argitaratutako Segurtasun Nazionaleko Estrategian⁴ islatu zen bezala, Hegsethen mezuak AEBren segurtasun-politikaren lehentasunak aldatu zituen.

Arreta Txinarekiko harremanaren –edo lehiaren– maneian eta Indo-Pazifikoko jarrita, AEBren

Segurtasun Nazionaleko Estrategiak marraztutako munduan Europak lehentasun izateari utzi dio Washingtonentzat, eta, beraz, bere segurtasunaren ardura hartu behar du.⁵ AEBren logikaren oinarria da Europa jada ez dela potentzia handien arteko borrokaren jokaleku nagusia, Gerra Hotzaren garaian izan zen bezala. Agertoki horrek –bi potentzien artean beti egongo den lehiaren logikan edo konfrontazioan oinarrituta, Washingtonek eta Beijingek etorkizunean kudeatu beharreko harreman horretan– bigarren mailako jokaleku gisa uzten du Europa, eta AEBk gaur egun lehentasunezko zat jotzen dituen alderdietara bideratu nahi ditu baliabideak. Segurtasun Nazionaleko Estrategiak argi eta lehentasunez mugatzen ditu: nagusitasunari eustea Amerikan; Txinaren gorakada kudeatzea, potentzia handi gisa; eta kontrako eragileei ez uztea Ekialde Hurbilean kontrola izaten.

Europa baztertuta geratu den planetako eremuan, AEBk segurtasun-hornitzaile izateari utzi dio, eta segurtasuna, energia, teknologia eta nekazaritzako produktuak erosten zaizkion hornitzaile bihurtu da. Hala adierazi zen Donald Trumpen Eskoziako golf-zelaian egindako merkataritza-akordioan.⁶ Akordio horrekin, Europar Batasunak konpromisoa hartu zuen, besteak beste, AEBri erosketa teknologiko eta energetiko handiak egiteko, nekazaritzako produktuak merkatu komunitarioan masiboki sartu ahal izateko oztopoak kentzeko eta Washingtonekiko koordinazioan oinarritutako segurtasun-egitura bat izateko. Nahiz eta Europa saiatu akordioa Europar Batasunaren gehiegikeria batzuk arintzeko beharrezko berrereka gisa aurkeztzen, merkataritza-akordioak berekin dakar Europa Estatu Batuen mende egotea

1. EFE. (2025, otsailak 12). «Hegseth dice que no es realista que Ucrania vuelva a las fronteras de 2014 ni el ingreso en la OTAN». <https://efe.com/mundo/2025-02-12/hegseth-no-realista-ucrania-fronteras-ingreso-otan/>

2. Ibid.

3. CBS News. (2025, azaroak 2). «“I inherited that stupid war” President Trump says of Ukraine» [Facebookeko bideo baten klipa]. *60 Minutes*. <https://www.facebook.com/watch/?v=2617432308618838>

4. The White House. (2025). *National Security Strategy of the United States of America*. <https://www.whitehouse.gov/wp-content/uploads/2025/12/2025-National-Security-Strategy.pdf>

5. Ibid.

6. The White House. (2025, abuztuak 21). *Joint statement on a United States-European Union framework on an agreement on reciprocal, fair, and balanced trade*. <https://www.whitehouse.gov/briefings-statements/2025/08/joint-statement-on-a-united-states-european-union-framework-on-an-agreement-on-reciprocal-fair-and-balanced-trade/>

Une batean, Washingtonek Ukrainari laguntza emateari utzi zion, eta gerrarako armak lortzeko Europaren beharra irabazi-iturri gisa erabiltzen hasi zen; une hori izan zen ikuspegi berriaren inflexio-puntua. AEB-Errusia eta AEB-Ukraina zuzeneko negoziazio-prozesuarekin batera, zeinak denbora honetan guztian ez baitu benetako emaitzarik eman, presoen trukeak eta su-eten laburrak baino, Washington Europako gatazkaren onuradun ekonomiko handienetakoa bihurtu da, orain, gatazka hori Europako herrialdeek finantzatzen baitute ia ehuneko ehunean.

teknologian, energian eta armagintzan, eta harreman ekonomikoak markatzen dituzten eta orientazio geopolitikoa argia eskatzen duten alderdietako hiru dira horiek.

Errusiak Ukraina inbaditu izanak, Errusiaren aurkako gerra ekonomikoaren aldeko apustuak eta Kievi emandako laguntza militarrek AEBren lotu zuen Europar Batasunaren eta Erresuma Batuen patua, eta, beraz, Washingtonek Europarekiko izandako jarrera-aldaketa aliantza-sarea zalantzan jarri duen *shock* politikoa izan zen. Donald Trump boterera iristearen ondorio handienetakoa Europaren berrarmatzea da. Berrarmatze hori arrazoitzeko Errusiaren mehatxua erabili bazen ere, ez zen 2022an hasi, 2025ean baizik, Ukrainako gerra fronte estatiko batean zegoela, eta jada argi geratu zenean Errusiak ez duela herrialde osoa atzemateko gaitasunik, eta, beraz, ez eta EBko edo NATOko kide den Europako herrialderik ere; izan ere, horiei eraso egiteak berekin ekarriko luke defentsa kolektiboko klausulak aktibatzea. Berrarmatzea ez zen hasi Errusiak aldameneko herrialde bat inbaditu zuenean, baizik eta Donald Trumpek Europako herrialdeei agindu zienean Ukrainako gerraren kudeaketaz eta kontinentearen segurtasunaz arduratzeko, Europa menderatu beharreko merkatu gisa soilik ikusten hasi baita Washington.

Mendebaldeko narratiban nagusi izan diren posizio eurozentrikoetatik, 2025ean gertatutako aldaketa, Donald Trumpen agintaldiko urte eta erdi honetan gertatutako aldaketa garrantzitsuena, Europako

gerrari eta Washingtonek kontinentean dituen asmoei buruzkoa da. Une batean, Washingtonek Ukrainari laguntza emateari utzi zion, eta gerrarako armak lortzeko Europaren beharra irabazi-iturri gisa erabiltzen hasi zen; une hori izan zen ikuspegi berriaren inflexio-puntua. AEB-Errusia eta AEB-Ukraina zuzeneko negoziazio-prozesuarekin batera, zeinak denbora honetan guztian ez baitu benetako emaitzarik eman, presoen trukeak eta su-eten laburrak baino, Washington Europako gatazkaren onuradun ekonomiko handienetakoa bihurtu da, orain, gatazka hori Europako herrialdeek finantzatzen baitute ia ehuneko ehunean.

Ukrainako gerraren ondorio argiena kontinentearen haustura da; izan ere, EBko herrialdeek uko egin diote Errusiatik lortzen zuten energia merkeari, eta, batez ere, merkataritza-akordioak eskatutako AEBren erosketen gorakadak ordeztu du hori. Erosketa horiek politikoki eta ekonomikoki AEBren borondatearen mende jartzen dute kontinentea, eta, Europaren begietara, aliatu fidagarri izateari utzi dio. Sentsazio hori areagotu egin zen 2026ko urtarrilean, Donald Trump Groenlandia erostearekin tematu zenean. NATOn sortutako barne-arrakala, Mark Rutte eta Donald Trumpek Groenlandian estatubatuarren presentzia eta nagusitasuna handitzeko baldintzak adosteko negoziazio batekin oinarriturik gabe itxia, trumpismoa Etxe Zurira itzuli izanak ekarri duen egoera geopolitikoaren aldaketaren isla da, agenda askoz anbiziotsuagoa baitauka, eta eskura dituen tresna hertsatzaile guztiak erabiltzeko borondatea baitu, aliatuak eta aurkariak Washingtonek ezarritako esparrua onartzera behartzeko.

Modu okerrean, kontinentearen isolazionismoaren eta atzera-egitearen seinaleztat hartu bada ere, AEBren Segurtasun Nazionalerako Estrategiaren helburu bakarra ez da Amerikaren nagusitasuna –*mendebaldeko hemisferioarena*–, baizik eta baita munduko armada aurreratu eta indartsuena, disuasio nuklear indartsuena, ekonomia indartsu eta berritzaileena, industria-oinarri sendoena, punta-puntako zientzia eta botere biguna izateko nahia ere, «eragin positiboa izateko eta, gainera, munduan barrena gure interesek aurrera egiteko».⁷ «Mundu osoan amerikar nagusitasun iraunkorrari» esplizituki

7. The White House. (2025). *National Security Strategy of the United States of America*. <https://www.whitehouse.gov/wp-content/uploads/2025/12/2025-National-Security-Strategy.pdf>

uko egin arren,⁸ AEBk Segurtasun Nazionalerako Estrategia zer terminotan planteatzen duen ikusita, ikus daiteke oraindik ere badagoela nagusitasunari eusteko borondatea. Lan horretan, Donald Trumpek berdin erabili ditu tresna ekonomikoak zein militarrek, eta osagarri gisa erabili du diplomazia, normalean bi indar mota horietako batekin batera.

Venezuelaren aurkako erasoa, aliatu europarrek Groenlandiaren kontrola Estatu Batuei lagatzeko presioa, eta Iranen aurkako mehatxuak eta ondoren haren aurka indar militarra erabiltzea dira 2025. urtean zehar garatutakoaren ondorioa, prestaketa kaotiko eta itxuraz inkoherentea den egoerarekin. AEBren nagusitasunaren gainbeheraren diskurtsoa orokortu bada ere, egoera horretan Washingtonek kontrol handiagoa erakutsi du mundu-mailako prozesuekiko, polo bakarreko munduko aurreko garaietan baino.

Estatu Batuetako ekonomiarentzat eta ekonomia globalarentzat ondorio negatiboak aurreikusten zituzten aditu ekonomikoek «groteskotzat» jo zuten arren,⁹ Trumpek *askapenaren egunaren* iragarpenarekin eman zion hasiera muga-zergen politikari. Orduan, Donald Trumpek munduko herrialde bakoitzari tasen zer ehuneko ezarriko zizkion aurkeztu zuen, bere esanetan Estatu horiek AEBri ezarritako muga-zergak kontuan hartuta, baina, egiaz, ordainketa-balantzaren desorekan oinarrituta egindako kalkulua zen.¹⁰ Tresna ekonomiko hori herrialdeei presio politikoa egiteko arma bat zen. Erresuma Batuak eta Europar Batasunak berehala bilatu zuten AEBren baldintzetan zorrozki negoziatutako merkataritza-akordioa, eta hainbat herrialde milioi askoko inbertsioak, AEBko produktuei muga-zergak kentzea edo AEBko produktuak erosteko konpromisoak eskaintzen hasi ziren Washingtoni; hori guztia, kasu askotan aldebiko merkataritza erabat bideraezina egiten zuten muga-zergak murriztea lortzeko.

8. Ibid.

9. Tooze, A. (2025, apirilak 7). «Chartbook 369: Are we on the edge of a major financial crisis? Trump's Chart of Death and why bonds not equities are the big stor». *Substack*. <https://adamtooze.substack.com/p/chartbook-369-are-we-on-the-edge>

10. Chu, B., eta Edgington, T. (2025, apirilak 3). «How were Donald Trump's tariffs calculated?». *BBC News*. <https://www.bbc.com/news/articles/c93gq72n7y1o>

Donald Trumpek duela gutxi Txinara egindako estatu-bisitaren emaitza mugatuak erakusten du Washington ez dela gai Txina hertsatzeko, ez beste herrialde batzuekin gertatzen den bezala. Bidaia horretan iragarri zen nekazaritza-produktuak muga-zergen gerraren aurreko egoerara itzuliko zirela eta hasiera batean espero baino Boeing aireontzi gutxiago erosiko zirela. Eskura dituen baliabideak erabiliz, batez ere ekoizpen teknologikorako eta armen ekoizpenerako ezinbestekoak diren lur arraroen esportazioa eteteko mehatxua, Bejingek AEB garaitzea lortu du merkataritza-gerra horretan; izan ere, Washingtonek irabaziak lortu baditu ere, argi utzi du zer muga dituen bere borondatea mundu-mailan ezartzeko.

Politikak talka egin zuen Txinak mehatxuei erantzuteko zuen gaitasunarekin. Donald Trumpek munduko beste liderren aurrean erakutsitako nagusitasuna desagertu egiten da aurrean Xi Jinping badu. Agerikoa da Trumpen konplizitatea indartsutzat hartzen dituen buruzagiekin –hala nola, Vladimir Putinekin–, baina Txinaren kasuan, AEBko ordezkariaren tonua ez da *mundua eragin-eremutan banatzeko* borondatearen ondorioa, baizik eta lehiari eusteko beharra, Bejingek karta garrantzitsuak baititu jokoan. Donald Trumpek duela gutxi Txinara egindako estatu-bisitaren emaitza mugatuak erakusten du Washington ez dela gai Txina hertsatzeko, ez beste herrialde batzuekin gertatzen den bezala. Bidaia horretan iragarri zen nekazaritza-produktuak muga-zergen gerraren aurreko egoerara itzuliko zirela eta hasiera batean espero baino Boeing aireontzi gutxiago erosiko zirela. Eskura dituen baliabideak erabiliz, batez ere ekoizpen teknologikorako eta armen ekoizpenerako ezinbestekoak diren lur arraroen esportazioa eteteko mehatxua, Bejingek AEB garaitzea lortu du merkataritza-gerra horretan;¹¹ izan ere, Washingtonek

11. Miller, C. (2025, urriak 27). «Why China keeps winning the trade war». *Financial Times*. <https://www.ft.com/content/56862105-01ad-48ac-96bd-907fa5185ea3>

Petrolioaren merkatu globalaren kontrola da AEBren politika berria hobekien ilustratzen duen elementua. Groenlandia eskuratzeko nahiak edo Ukrainari mineralei buruzko akordio bat inposatzeko saiakerak —herrialdea erauzketa-kolonia bihurtuko luke, Washingtonek, besteak beste, bateriak fabrikatzeko litioa lortu ahal izateko— etorkizuneko ekonomia mugituko duten lehengaiak kontrolatzeko nahiari erantzuten dio; petrolioaren fluxuaren kontrolak, berriz, egungo ekonomia mugitzen duen energiaren merkatua hartu nahi du mende.

irabaziak lortu baditu ere, argi utzi du zer muga dituen bere borondatea mundu-mailan ezartzeko.

Txinaren kasuan, AEBren esku dagoen arma ekonomikoa energia da. Petrolio- eta gas-inportatzaile handia den aldetik, energia berriztagarrien garapenak eta bateria elektrikoaren erabilera ia *elektroestatu* bihurtzen dute Txina, baina erregai fosilekiko mendekotasunak bere horretan dirau. Ezaugarri bera dela eta, Txina ahulagoa da energia-merkatuaren kontrolarekiko, AEBk beste herrialde batzuen aurka erabilitako muga-zergei eta gerra ekonomikoko beste tresna batzuen mehatxuekiko baino. Indiaren kasua da, hainbat mehatxuren ondoren, Errusiako petrolio merkearen erosketak etetea onartu baitzuen.¹² Petrolio hori, herrialdean findu ondoren, etekin handiak sortuz saltzen zuen. Txinari muga-zergak ezartzeko mehatxua antzekoa izan zen; emaitza, kontrakoa.

Petrolioaren merkatu globalaren kontrola da AEBren politika berria hobekien ilustratzen duen elementua. Groenlandia eskuratzeko nahiak edo Ukrainari mineralei buruzko akordio bat inposatzeko saiakerak —herrialdea erauzketa-kolonia bihurtuko luke, Washingtonek, besteak beste, bateriak fabrikatzeko litioa lortu ahal izateko— etorkizuneko ekonomia mugituko duten lehengaiak kontrolatzeko nahiari erantzuten dio; petrolioaren fluxuaren kontrolak,

berriz, egungo ekonomia mugitzen duen energiaren merkatua hartu nahi du mende.

Kuban izan ezik, non Gerra Hotzaren alderdi ideologikoa eta antikomunismoa diren faktore nagusiak, erregai fosilak edo bide komertzialak faktore erabakigarriak dira AEBren esku-hartze militarra izan duten agertokietan. Gerra ekonomikoa eta mehatxuak izan dira Donald Trumpek hasieran erabilitako tresna Venezuela, Iran eta Errusia bere borondatearen menpe jartzeko, guztiak ere ez zirenak energia-merkatuko jokalaririk handiak eta AEBren aliatuak, baina, azkenean, esku-hartze militarrek erabili dira ezarritako eredu inposatzeko.

Hainbat hilabetez Venezuelak zigortutako petrolioaren merkataritza eragozteko itsas blokeoa ezarri ondoren, AEBk operazio militar bat egin, eta Nicolás Maduro bahitu zuen. Harrezkero, Washingtonek Delcy Rodríguez onartu du presidente arduradun gisa, eta Venezuelako petrolioaren fluxua kontrolatu du, zeinaren bezero nagusia Txina izan baita azken urteetan.¹³ Zenbait aste geroago, besteak beste Estatu Batuen *presio gorenko* politikaren ondoriozko kolapso ekonomikoa Iranen eragindako protestek indar militarra erabiltzeko lehen mehatxuak eragin zituzten, protestak babesteko premisapean.¹⁴ Azkenik, otsailaren 28an esku hartu zuten, eta urtebete baino gutxiagoan bigarren gerra bat izan zen, oraingoan herrialdeko petrolio-azpiegiturak suntsitzeko mehatxu errepikatuekin,¹⁵ haien kolapsoa behartzeko. Venezuelaren kasuan bezala, Irango petrolio-esportazioen helmuga nagusia Txina da.¹⁶

Potentzia militar bat mehatxu militarren bidez beldurtzea askoz zailagoa izanik, Venezuelaren eta Iranen aurkako itsas blokeoak halako herrialde handi

12. Mollan, C. (2025, azaroak 21). «India's largest conglomerate stops Russian oil imports amid global pressure». *BBC News*. <https://www.bbc.com/news/articles/c9d911e7nxeo>

13. Reuters. (2026, urtarrilak 3). «Venezuelan oil industry: World's largest reserves, decaying infrastructure». *Reuters*. <https://www.reuters.com/business/energy/venezuelan-oil-industry-worlds-largest-reserves-decaying-infrastructure-2026-01-03>

14. BBC News. (2026, urtarrilak 12). «Live coverage» (cj691w2e840t). *BBC*. <https://www.bbc.com/news/live/cj691w2e840t>

15. Deutsche Welle. (2026, martxoak 31). *Trump amenaza con destruir principal terminal petrolera de Irán*. DW. <https://www.dw.com/es/trump-amenaza-con-destruir-principal-terminal-petrolera-de-ir%C3%A1n/a-76600336>

16. Statista. (2026, martxoak 9). *China is the biggest buyer of Iranian oil* [Gráfico]. Statista. <https://www.statista.com/chart/35945/countries-that-buy-oil-from-iran>

baten aurka errepikatzeko aukerarik gabe, eta zigor ekonomikoen arrakasta mugatuaren esperientziarekin, AEB Ukrainako gerraz baliatu da distantzia luzeko erasoak babestu eta Errusiako Federazioaren ahalmen esportatzailea txikitzeko, aurkari handia baita merkatuan, bai eta Txinaren petrolio-hornitzailea ere. 2025ean, AEBk Ukrainarekin lankidetzan aritzea erabaki zuen, drone bidezko erasoetarako baimena eta inteligentzia eskainiz. Horri esker, Kievek hilabeteak daramatza Errusiako Federazioaren petrolio-ekoizpen eta esportazio-gaitasunak higatzen.¹⁷ Aukera hori ez da AEBk, Venezuelaren kasuan arrakastaz eta Iranen kasuan porrotarekin, bere babespean ez zeuden eta bezero nagusitzat Washingtonen aurkari ekonomikoa zuten herrialdeen petrolio-fluxua kontrolatzen saiatzeko egindako operazioak bezain arriskutsua eta garestia.

Egungo ekonomia mugitzen duen energia-merkataritza kontrolatzeko ahalegina trumpismoak birkonfigurazio geopolitikoa egiteko dituen asmoen isla ona da: Amerika bere kontrol zorrotzaren pean geratuko litzateke; Europa bere produktu teknologikoak, armamentistikoak eta energetikoak kokatzeko mendeko merkatua izango litzateke; Afrika lehengaien iturri izango litzateke; eta Ekialde Hurbilak Washingtonek markatutako parametroen arabera hornituko luke energia. Hori guztia begirada beti Txinan jarrita; izan ere, aurkari horren gorakadak eta mehatxuei erantzuteko gaitasunak baldintzatzen du AEBren eta haren aliatuen jardun politikoa eta ekonomikoa. ■

Bibliografia

BBC News. (2026, urtarrilak 12). «Live coverage» (cj691w2e840t). *BBC News*. <https://www.bbc.com/news/live/cj691w2e840t>

CBS News. (2025, azaroak 2). «“I inherited that stupid war” President Trump says of Ukraine» [Bideoa]. Facebook. <https://www.facebook.com/watch/?v=2617432308618838>

17. Miller, C., Mackinnon, A., eta Seddon, M. (2025, urriak 12). *Ukraine hit Russian energy sites with US help*. *Financial Times*. <https://www.ft.com/content/56862105-01ad-48ac-96bd-907fa5185ea3>

Chu, B., eta Edgington, T. (2025, apirilak 3). «How were Donald Trump’s tariffs calculated?». *BBC News*. <https://www.bbc.com/news/articles/c93gq72n7y1o>

Deutsche Welle. (2026, martxoak 31). «Trump amenaza con destruir principal terminal petrolera de Irán». *DW*. <https://www.dw.com/es/trump-amenaza-con-destruir-principal-terminal-petrolera-de-ir%C3%A1n/a-76600336>

EFE. (2025, otsailak 12). «Hegseth dice que no es realista que Ucrania vuelva a las fronteras de 2014 ni el ingreso en la OTAN». *EFE*. <https://efe.com/mundo/2025-02-12/hegseth-no-realista-ucrania-fronteras-ingreso-otan/>

Miller, C. (2025, urriak 27). «Why China keeps winning the trade war». *Financial Times*. <https://www.ft.com/content/56862105-01ad-48ac-96bd-907fa5185ea3>

Miller, C., Mackinnon, A., eta Seddon, M. (2025, urriak 12). «Ukraine hit Russian energy sites with US help». *Financial Times*. <https://www.ft.com/content/f9f42c10-3a30-4ee1-aff7-3368dd831c8c>

Mollan, C. (2025, azaroak 21). «India’s largest conglomerate stops Russian oil imports amid global pressure». *BBC News*. <https://www.bbc.com/news/articles/c9d911e7nxeo>

Reuters. (2026, urtarrilak 3). «Venezuelan oil industry: World’s largest reserves, decaying infrastructure». *Reuters*. <https://www.reuters.com/business/energy/venezuelan-oil-industry-worlds-largest-reserves-decaying-infrastructure-2026-01-03/>

Statista. (2026, martxoak 9). «China is the biggest buyer of Iranian oil». [Gráfico]. <https://www.statista.com/chart/35945/countries-that-buy-oil-from-iran/>

The White House. (2025). *National Security Strategy of the United States of America*. <https://www.whitehouse.gov/wp-content/uploads/2025/12/2025-National-Security-Strategy.pdf>

The White House. (2025, abuztuak 21). *Joint statement on a United States-European Union framework on an agreement on reciprocal, fair, and balanced trade*. <https://www.whitehouse.gov/briefings-statements/2025/08/joint-statement-on-a-united-states-european-union-framework-on-an-agreement-on-reciprocal-fair-and-balanced-trade/>

Yayo Herrero

KARGUA falta da

| sabelle Stengers zientzia-filosofoak dio Gaia ideiarener agerpenak markatutako garaian bizi garela. Bizitzaren bilbea, gure kulturak natura deitzen duena, eragile ekonomiko eta politiko moduan sartu da, eta inork ezin du harekin negoziatu.

Ekofeminismoek duela hainbat hamarkadatik salatzen duten kapitalaren eta bizitzaren arteko kontraesana gero eta modu bortitzagoan adierazten da. Ziklo naturalen aldaketa globalean adierazten da bizitzaren aurkako gerra, eta ziklo horiek bizitzaren oreka dinamikoak hartzen zituzten oinarri. Giza bizitzarako segurtasun-mugek ezartzen dituzten mundu-mailako bederatzi mugetatik zazpi gaindituta daude. Baina bizitzaren aurkako gerrak pertsonen bizibaldintzei ere bortizki eragiten die, eta polikrisi bat sortzen du. Egoera horretan, dimentsio ekologikoak lotura du krisi ekonomikoekin eta zaintza-krisiekin, pobretze gero eta handiagoarekin, nahitaezko migrazioekin edo gerrekin.

Ulrich Brand eta Markus Wissen politologoek bizimodu inperiala izena jarri diete gizakien arteko harremanei, eta gizakien eta bizitzaren bilbearen arteko harremanei, gune kapitalistetako eguneroko bizimodua ahalbidetzen baitute. Bizitza inperiala beste pertsona eta izaki bizidun batzuen kontura eraikitzen da, lurzorua eta lurra inguratzen duen aire-geruza finaren kontura, baita gure planetaren inguruan biraka dabilzan tramankuluz betetako kanpoko espazioaren kontura ere.

Azken hamarkadetan, munduan zehar zabaldutako kapitalismoak muturreraino sofistikatu zituen finantza-tresnak, zorra eta lege-multzo oso bat, nazioarteko itunak eta akordioak. Egitura horrek guztiak bidea errazten die nazioz gaindiko botere ekonomikoari herriak suntsitzeko, lurraldeak ustiatzeko, egon litekeen babes publiko eta komunitarioko sarea desegiteko eta sortzen diren erresistentziak erreprimitzeko.

Polikrisiari erantzuteko, mundu aberatsak mugak blindatzen ditu. Hormak altxatzen dituzte lurraldeak eta pertsonak bereizteko, eta harresi horiek migrazioa oztopatzen dute. Dena dela, harresi horiek egunero irekitzen eta ixten dira migratzaileak datozen lurraldeetako produktuak sartzeko, besteak beste, mineralak, arraina, elikagaiak eta energia, baina migratzaileek ezin izaten dute sartu.

Baina egungo testuinguruan, behin muga biofisikoak gaindituta eta uzkurdura material saihestezineko testuinguruan, gatazkak biderkatu egiten dira. Lurraldeak, ondasun komunak eta natura dira eztabaiden ardatz nagusia, eta politika eta ekonomia nagusiek areagotu egiten dituzte estraktibismoak eta esplotazioaren indarkeria.

Polikrisiari erantzuteko, mundu aberatsak mugak blindatzen ditu. Hormak altxatzen dituzte lurraldeak eta pertsonak bereizteko, eta harresi horiek migrazioa oztopatzen dute. Dena dela, harresi horiek egunero irekitzen eta ixten dira migratzaileak datozen lurraldeetako produktuak sartzeko, besteak beste, mineralak, arraina, elikagaiak eta energia, baina migratzaileek ezin izaten dute sartu.

William Robinson soziologoak polizia-estatu globalaren¹ kontzeptua sortu zuen, ekonomia eta gizarte globalen izaera emergentea deskribatzeko, osotasun errepresibo gisa, eta osotasun horren logika,

1. *Mano dura. El estado policia global, los nuevos fascismos y el capitalismo del siglo XXI*. 2023, Errata Naturae, Madril. William I. Robinson

Intentsitate txikiko edo handiko gerrak, kontrol sozialeko sistemak, drogen aurkako gerrak, migratzaileen aurkako jazarpena, arraza- eta erlijio-gutxituen aurkako gerrak, edo, oro har, edozein gatazka sozial kapitala metatzeko aukera bihurtzen da. Botere-taldeek interes handia dute gerran, gatazkan eta errepresioan, dirua pilatzeko helburuarekin, eta horrek gizarte osoari eragiten dio.

aldi berean, ekonomikoa, kulturala eta politikoa da. Elkarri lotutako hainbat fenomenoren gainean eraikitzen den egoera errepresiboa. Robinsonen arabera, ekonomia bera gero eta gehiago dago gerraren, kontrol sozialaren eta errepresioaren sistemen bilakaeraren eta ezarpenaren mende, sistema horiek irabaziak lortzeko eta geldialdi ekonomikoaren aurrean kapitala metatzen jarraitzeko bitarteko bihurtzen baitira. Desjabetze bidezko metaketa² deitzen dio prozesu horri.

Intentsitate txikiko edo handiko gerrak, kontrol sozialeko sistemak, drogen aurkako gerrak, migratzaileen aurkako jazarpena, arraza- eta erlijio-gutxituen aurkako gerrak, edo, oro har, edozein gatazka sozial kapitala metatzeko aukera bihurtzen da. Botere-taldeek interes handia dute gerran, gatazkan eta errepresioan, dirua pilatzeko helburuarekin, eta horrek gizarte osoari eragiten dio.

XXI. mendearen lehen laurdenaren amaieran ultraeskuinak hartu duen indarra ulertzeko, jasaten ari garen krisiaren izaera ekosoziala bere larritasun osoan aitortu behar dugu. Elite pribilegiatuak basatiak eta gupidagabeak dira datozen krisiei aurre egiteko beharrezkotzat jotzen dituzten lurra eta baliabideak (ura, energia, mineral kritikoak) bortizki eskatzeko borondatean.

Ziklo politiko eta sozial berri bat hasi da. Garai honetan, ez dira disimulatzen ekozidua, kolonialismoa, arrazakeria eta misoginia. Polikrisi ekosozialari emandako erantzun autoritario eta distopikoaren

oinarri esplizituak dira, eta harrokeriaz aldarrikatzen dira.

Europar, Giza Eskubideak eta trantsizio ekologikoa defendatzen jarraitzen badute ere, egoera horiei buruz gutxi hitz egiten da. Ultraeskuineko sektoreek arazoak izendatzen dituzten, eta, trikimailu politikoa erabilia, arazo horien errudunak migratzaileak direla diote. Sektore aurrerakoiek, ordea, askotariko gaiak nahasten dituzten dokumentuak idazten dituzte. Trantsizioek jasangarriak, bidezkoak, berdeak, lasaiak, pozgarriak eta zorientsuak izan behar dute. Ez dute beldurtu, gogaitu edo eragotzi behar. Ezkerrak ez du zenbait gauzaz hitz egiten, eta horrek hutsuneak uzten ditu ultraeskuinak nahi duenaz hitz egiteko.

2024ko azaroan, Donald Trumpek bigarren aldiz irabazi zituen Estatu Batuetako presidentetzarako hauteskundeak, nahiz eta ez izan jarraian. Ordutik hartutako neurriak benetako lurrikara soziala izan dira. Kapitala errotik erasotzen duten neurri erradikalek helburu hauek dituzte: Estatua pribatizatzea, munduko ordena aldatzea, botere demokratikoak kontrolatzea, politika birbanatzaileak eta ekosozialak murriztea, herrialdeak inbaditzea, gerrak aitortzea edo Palestinan genozidua areagotzea.

Migratzaileak deportatzea eta lubakitutako nazioaren mugak zaintzea bada faxismo apokaliptikoaren lehen zeregina. Bigarrena da datozen garai latzak gainditzeko babesa duten herritarrak beharrezkoak diren baliabide guztiez jabetzea. Panamako kanala, Groenlandia, Ukrainako mineral kritikoak, Kanadako ur geza, Venezuelako edo Irango petrolioak.

Arriskuak dauden garai zail hauetan, hainbat estatutan sortutako mugimendu supremazistek gotorleku armatu bihurtu nahi dituzte estatuak. Soberazkotzat jotzen dituzten pertsonak kanporatzeko eta konfinatzeko orduan zorrotzak izatea nahi dute. Aldi berean, krisiei aurre egiteko beharrezkoak diren lurra, ura, energia, elikagaiak eta mineralak indarrez bereganatu nahi dituzte.

Elite ekonomikoek, ameslari ultrateknologikoek eta fundamentalista erlijiosoek aliantzak egiten dituzte, nahiz eta arraroa iruditu. Gizarteak Méduse ontziaren almadia bezala tratatzen dituzte. Baltsa horretan, edozein bultzatu, hil, lapurtu edo kanibalizatu eta banpirizatu behar da, haren gainean jarraitzeko. Krisiari ematen zaion erantzuna gurutzada moduko bat da, gizaki ororen abandonuan oinarritua. Gorputza,

2. Ibidem

Egungo olatu totalitarioak krudelkeria erakustearen aldeko apustua egiten du, mediatikoki eta performatiboki. Batetik, indarkeriaren ikusgarritasunak eta deshumanizazioak krudeltasuna normalizatu eta enpatia desegiten dute. Bestetik, dinamika horrek pertsonak isolatzea bilatzen du, pobreen eta pobrea izateko beldur direnen arteko borroka suspertzeko. *Jende askok etsipena, tristura eta ziurgabetasuna sentitzen du.* Ideologia ultraeskuinak gaizki dagoena adierazten du, eta irtenbideak eskaintzen dituzte: denon kontura aprobetxatzen direnei laguntza gehiago ez ematea txalotzea, gaizkiletzat jotzen dituzten pertsonen deportazio masiboa ospatzea edo ekonomia- eta ingurumen-erregulazioak ezabatzea

interdependentzia, errukia, zaugarritasuna eta bizitzaren konplexutasuna alde batera utzi beharreko oztopoak dira.

Benetako arrisku adongo garai batean bizigara: kolapso klimatikoa eta gerra nuklearra, desparekotasun gero eta handiagoak eta arautu gabeko adimen artifiziala. Mehatxu horiek areagotzen dituzten logikekin gaude konprometitu finantzarioki eta ideologikoki, eta eskuin muturreko mugimendu garaikideek ez dute ikuspegi sinesgarririk aberatsak ez direnei eta ihes egiteko asmorik ez dutenei etorkizun itxaropentsua eskaintzeko. Kontakizunak sortzen dira, eta boto-emaileei sekula existitu ez zen iragan baten nostalgia eskaintzen diete soluzio sinpleen bidez. Horrez gain, pertsona batzuei beste batzuk erruduntzat jotzeko eta zigortzeko aukera ematen diete, haiek baino egoera okerragoan daudenak.

